

# Goienkaria

2009ko apirilaren 8a > Eguaztena > IX. urtea > 372. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

## G2a

Liburutegien  
kanona berbagai  
Arrasaten > 21

**ERRENTEA AITORPENA**  
Autolikidazio proposamenak  
onartzeko epea irekitzea dago > 04

**BERGARA**  
Seminarioagatik trukatu nahi du  
Udalak, Arrizuriaga jauregia > 12

"Aste Santua  
kristau fedearen  
muina da;  
alegia, kristau  
garenon 'Aste  
Nagusia'"

Angel Ipiña  
Abadea > 07

**ANTZUOLA**  
Balentin Aperribai omenduko dute  
Debagoieneko Trikiti Egunean > 17

JENDARTEA > PREBENTZIOA

## 'Gurasoak' aldizkaria sortu dute prebentzioa bultzatzeko

**UDALAK** Bailarako udalek bultzatutako proiektua da eta 0-18 urte bitarteko seme-alaben gurasoei zuzenduta dago

**GURASOAK** Seme-alaben heziketaren gainean izan ditzaketen zalantzak eta kezkak argitzeko tresna izatea nahi dute

**GALDERAK** Informazio zabala emateaz gain, e-postaz gurasoek planteatutako galderak erantzungo ditu > 04

POLITIKA > ABERRI EGUNA

## Dei egin dute Aberri Egunerako

Domekarako dei bateratzailea egin dute Aralarrek, EAk eta ezker abertzaleak > 04



GIDARIAK Eskoriatza-Luku zatiko irteeran elkarriketatu genituen Patxi garaiolari bergararra eta Juan Manuel logroñoarra.



XABIER URTZELAI

**"Autobide ederra da, eta orain doan,  
gainera; ea gero prezioa zelakoa den"**

Segurtasunean eta erosotasunean irabazi da; hori da AP-1eko Eskoriatza-Luku zatiko lehenengo erabiltzaileek nabarmendu dutena. Hala esan zion GOIENKARIari Patxi garaiolariak; era bere-

an, "Isuskitzako tunelean bazterrak estu samarrak" iruditu zitzakion. Juan Manuel errioxarra, bestalde, Bilbora bidean desbideratu egin zen AP-1 probatzeko; "ederra" iruditu zitzaison. > 02-03

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04  
Gutunak > 06  
Elkarrikzeta > 07  
Herriak > 09-19  
Kirola > 20  
Kultura > 22-23  
Sailkatuak > 24  
Gazteak > 26  
Telebista-Irratia > 27  
Zerbitzuak > 28  
Berri-zakua > 29  
Eskelak > 29  
Non-zer > 30-31



Pazko jai  
ostera arte

Oporrak hartuko ditugu apirilaren 15era bitartean. Hala, Asteleheneko Goienkaria-ren hurrengo zenbakia apirilaren 20an argitaratuko dugu eta GOIENKARIarena, 24an. Ordura arte, ondo izan.

JENDARTEA > TURISMOA

## Eskaintza zabala oporraldia gurean igaroko dutenentzat

Aste Santu eta Pazko asteko oporraldia gurean ondo pasatzeko aukera zabala dago; eta halaxe erakusten du bailarako turismo bulegoetako eskaintza zabalak.

Bailara osoa ezagutu nahi duenak hainbat ibilbide eta monumentu bateratzen dituen bisita kontrata dezake. Bestalde, herri-

kako ordubete inguruko bisita gidatuak ere badira, baita museo eta kobazuloetara bisita ere.

Eta hori gutxi balitz, Debagoien gastronomiaren bidez ezagutzeko aukera ere eskaintzen dute ibarreko 16 jatetxek. Pella, odoloste eta gaztaz osatutako menuak presentatuko dituzte. > 04

KIROLA > FUTBOLA

## Reala eta Athletic Bergaran

Zapatuan Realak eta Athleticek gazte mailako torneoko partidua jokatuko dute Agorrosinen > 20

AZPIEGITURAK &gt; AP-1 AUTOBIDEA

# Ekainera arte doakoa da AP-1 autobideko zati berria: Luku-Eskoriatza

**ARABAREKIN LOTURA** Gipuzkoa eta Araba lotzen dituen autobide zatia, 17 kilometrokoa, astelehenean inauguratu eta zabaldut zuten

**LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA**  
Lerro hauetan argitaratu orduko, dagoeneko makintxoa bat debagoendarrek eta arabarrek estreinatuko zuten AP-1 autobideko azkenurreko ireki duten zatia, Eskoriatza eta Luku lotzen dituena eta muga fisiko zein psikologiko bat gainditzen duena: historikoki Araba eta Gipuzkoaren artean egon dena. Erabiltzaile horiek, gainera, doan erabili ahal izango zuten –eta dute– zati hori, autobideko zapigarren eta azken zatia zabaltzen den arte: Arrasate-Eskoriatza. Hori ekainerako aurreikusten da.

GOIENKARIAK erabiltzaile batzuekin berba egin du eta denek gustuko izan dute autobidea; batzuk hantxe ibiltzeko propio desbideratu egin dira, Errioxatik Bilbora bidean. Ikuaz min handia piztu du AP-1en zati berriak, hortaz, eta ez bakarrik gure inguruau. Eskoriatzako sarrerako ordainlekuau, ibilgailuak geratu ere ez dira egiten, eta gero ere orduko 40 km-ra pasatu ahal izango dira, tag edo *on-board equipment* delako sistema duen lau ordainlekuetatik batetik pasatuz gero; basketxeak emandako gailu bat eramanet gero autoak, sistemak hura detektatu eta kontu korrontetik zuzenean kobraztzen du ordainsaria. Ordainleku horretan, orduko 1.000 bat ibilgailu hartzeko gai da autobidea; oso gaitasun handia, hortaz, Europako gorenean dagoena.

Astelehenean, Isuskitzako tunel barruan egin zuten inaugurazio ekitaldia. Juan Jose Ibarretxe jarduneko lehendakariari iga-rri zitzzion despedida kutsu antzezko bat bere hitzotan, baina "guztioi zorionak" ematea izan zen bere mezuaren muina. "Garraiobide

**IA BUKATUTA** AP-1 autobideak Arrasate-Eskoriatza zatia bakarrik falta du bukatuta egoteko, eta hori ekainean ireki nahi dute

**Lehenengo erabiltzaileek segurtasun neurriak, azkartasuna eta Isuskitzako tunela azpimarratu dituzte, GOIENKARIAK jasotako iritzietan**

**"Lanak ez dira bukatu: Eskoriatzan, Bidegik agindu zizkigun neurri zuzentzaile eta konpentsatzaleak betetzeko garaia iritsi dela uste dugu" dio Eskoriatzako alkateak**

modernoan behar dugu lehiakorrak izateko, eta ekonomia eta giza-garapen jasangarrria izateko". Hori bai: "herri honen etorkizuna trema da", gogorarazi zuen.

**"LANAK EZ DIRA BUKATU"** Gipuzkoako eta Arabako ahaldun nagusi Markel Olano eta Xabier Agirre ere izan ziren hizlari, eta baita Bidegiko ordezkariak ere. Agirre pozik azaldu zen "Debagoinenak historikoki Gasteizekin duen lotura" AP-1ekin erraztu egin delako, eta egitura handi horrek "herria gorpuzten" duelako. Olanok metaforaren bidea aukeratu zuen: "Ate batzuk ixten dira betirako, alegia, Gipuzko eta Araba banantzen zituen Arlabango ate edo oztopoa; eta baita gipuzkoarrok dugun fatalismoaren atea ere, Gipuzkoan dugun bananketa politikoaren erruz proiektuak garatu ezin ditugula sinistearren fatalismoa".

Bidegiko arduradun Borja Jauregik gogoratu zuen autobidearen lanok Gipuzkoako lurra beste maldatsua izan den historia izan dutela, eta "benetako sufrimendua" izan direla lanok behin baino gehiagotan. Hala ere, "egindako ahaleginaren saria da Debagoinenari oraindik indartsuago garatzen lagunduko dion bide hau". Lanok egin dituzten guztioi eta, oro har, Deba arro osoa gogoz zoriondu zituen. "Obra izugarria" izan dela esan zuen Jauregik: hori irudikatzeko eman zuen honako datua, Gipuzkoaren aldetik bakarrik 275 milioi euro inbertitu direla.

Ahots kritikorik ere izan zen: Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek, agintarion hitzak entzun ondoren, atsekabez esan zuen "guretako ez dela hain egun



Goian, ordezkari politikoak Isuskitzako tunelean; behean, hitzaldien une bat, bi ahaldun nagusia

## HAINBAT DATU

> 17 kilometro luze da tarte osoa: 10,8 kilometro Eskoriatza-Isuskitza tartean, eta 6,6, Luku-Etxabarri tartean.

> 4 galtzada ditu; Eskoriatza-Isuskitzakoak 7 metro zabal dira, eta Isuskitza-Lukukoak, 7,5.

> 2,5 METRO zabal dira kanpo-bazterbideak

> METRO 1 zabal dira barne-bazterbideak

> 2 METRO zabal da erdibitzailea Eskoriatza-Isuskitza tartean, eta 9 metro, Isuskitza-Luku tartean.

> %4,5 da gehieneko malda Eskoriatza-Isuskitza tartean, eta Isuskitza tunel barruan, berriz, %2,5.

## ISUSKITZAKO TUNELA

> 3 hodi arteko lotura ibilgailuen pasabiderako.

> 8 hodi arteko lotura oinezkoen pasabiderako.

> 81 kontrol kamera (zirkuitu itxiko telebista).

> 142 seinaleztapen aldakorreko ekipo.

> 247 bozgorailu.

> 46 haizagailu.

> 114 instrumentazio ekipo (opazimetroak, CO-detektagailuak eta beste batzuk) aireztapena kontrolatzeko.

> 63 SOS zutabe barruan, eta 4 kanpoaldean.



ak Pedro Lasagabaster eta Inaxio Garro alkateekin, eta aurreskua.

LEIRE KORTABARRIA

handia"; gaineratu du "lanak oraindik ez direla bukatu; asko falta" dela, eta Foru Aldundiari eskatu zizkion agindutako neurri zuzentzaileak bete ditzala -hainbat erreprise konpondu, erreka-guneak eta natur-guneak berreskuratu, kaltetutako zerbitzuak birgaitu... - eta konpentsazio neurriak ere, itzulezinak diren kalteak konpentsatzekoak -herri-gunean aparkalekuak egitea eta kaltetutako auzoan interes sozialeko lanetarako dirulaguntzak ematea.

#### ISUSKITZA, AP-1eko izarra

Inaugurazioa egiteko tokirik ero-soena izan ez arren, zati berriko eta autobide osoko leku esanguratsuenetariko bat aukeratu zuten arduradunek: Isuskitzako tunela. Euskal Herriko luzeena da, bere 3.377 metrorekin; bigarrena baino dezente luzeagoa, gainera (Belatekoa da, N-121-A-n, 2.960 metro-rekin). Gipuzkoa eta Araba mendibitik lotzen dituen tunel hori egiteko lau urtean jardun dute jo eta su aldi berean 700 langile baino gehiagok; 3.000 eztanda baino gehiago eta 525.000 kilo lehergailu behar izan dira.

Isuskitzako tunela da AP-1eko edo, behintzat, Eskoriatza-Luku tarteko izarra, baina ez da azpiegitura ikusgarri bakarra; kontuan hartu behar da tarte horren erdia baino gehiago biaduktua edo tunelak direla. Hala, Eskoriatzatik Isuskitza arteko 10,8 kilometroetan, bost bidezubi daude: Marin (598 m), Zarimutz (480 m), Mazmela (404 m), Uztarreta (240 m) eta Apotzaga (108 m), eta Zarimuzko tunela (500 m). Isuskitzako tuneleko 2,1 km Gipuzkoan daude, eta beste 1,3ak, Araban. Bestalde, Isuskitzatik Lukuarainoko tarteko zortzi kilometroetako egiturak ere ez dira txikiak: Luku tunela (620 m), Santa Engrazia bidezubia (106 m), Bentabarri bidezubia (85 m) eta Luku bidezubia (84 m).

Hamar urte baditzute Eibar-Gasteiz autobideko lanok, eta ia bost hartu dituzte Eskoriatza-Isuskitza tartekoek. Dena ondo bidean, ekainean ikusiko dugu zabalik AP-1 autobide osoa.


#### GIDARIEN IRITZIAK



Anjel



Mustafa



Michel

Eskoriatzako irteeran, tramu berritik lehenengo aldiz ibili berri harrapatu genuen Anjel. Gasteiztik ibarrera "nahiko saritan" etortzen dela esan zigun Anjelek, eta "oso-oso ondo" dagoela autobidea: "Denbora aldetik asko aurreratzen da, eta Gatzagako errebuelta horiek parerik kentzen dizkigu".

Inaugurazio egun berean, astelehenean, estreinatu zuten Mustafa eta lankideek Eskoriatza-Lukuztia, egunero etortzen dira-eta Debagoienera lanera, Miranda aldetik. "Lehen, denbora luzea behar genuen hona etortzeko; orain, 15 minutuan egin dugu". Oso gustura daude autobide berriarekin.

Madril dik lehenengo aldiz etorri zen Michel garraiolaria. "Ez neki autobia berria zenik; TomTom-ak esaten didan bidea hartzen dut", esan zigun; behintzat orain sistema horiek existitzen den erreprise batetik bideratuko dituzte gidarioiak. Isuskitzako tunelak harritu zuen: "Primerakoa da; hori bai, koberturarik ez du".

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

**SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA**

**Jose Luis Carnicero (Bergara)**

### Apirileko zozketa

#### Sariak irabazteko HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Kuota: 40 euro

#### SARRERAK



Bruesa-Ricoh Manresa partidurako sarrerak.  
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

#### KAMISETA+DVD

DANBAKA)))

Danbakako kamiseta eta DVD bat.  
BIDALI AG DANBAKA 5533 zkra



#### KAMISETA

skunkfunk



Skunkfunk kamiseta bat.  
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra

#### PEN-DRIVE

Goienako Pent-Drive bat.  
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.



## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZALE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA  
BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK



JL Abuin  
25 urte masajeak ematen.  
Tel. 635 165 232

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEza dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goien Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batzen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haien zuzentzeko edo eeztatatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Aurretik Bergara eta Arrasaten zeuden gurasoendako aldizkariak osatzera dator 'Gurasoak'

O eta 18 urte bitarteko seme-alaben heziketan lagungarria izan daitekeen informazioa helarazi nahi da

**NEREA MENOR > BERGARA**  
*Gurasoak* izeneko aldizkaria kaleratu berri dute Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Antzuola, Bergara eta Elgetako udalek. 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoiei zuzenduta dago eta haien postontzieta banatuko da apirilean zehar. "Banaketa egin ezberdinietan egingo da, herriaren arabera", diote Arrasateko Udalean. Orain arte Arrasaten eta Bergaran argitaratu izan diren *Gertutik* eta *Aurrera Begi-*

**ZERBITZUAK > 'GURASOAK' ALDIZKARIA**

## Debagoieneko udal gehienek 'Gurasoak' prebentziozko aldizkaria kaleratu berri dute

ra aldizkariak osatzera dator eta eskualde osora zabalduko da.

Proiektu horrekin, prebentzioaren arloan pauso bat gehiago eman nahi dutela adierazi dute udalek. *Gurasoak* aldizkariak "seme-alaben heziketan

lagungarria izan daitekeen informazioa helarazi nahi die gurasoak; besteak beste, garapen pertsonala sustatzeko gaiak eta guraso hezitzale lanean eraginkorrak izateko baliagarriak izan daitezkeen hainbat estrategia", diote

**DATUA**  
**7**  
**HERRITAN BANATUKO DA**

Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan banatuko da *Gurasoak*. Oñatin, *Familixan*, herriko aldizkaria, banatzen jarraituko dute.



Lehenengo zenbakia. GOIENKARIA

Debagoieneko udalek. Informazioa helarazteaz gainera, partaidetza sustatu nahi dute. Gurasoak seme-alaben heziketaren gaineran izan ditzaketen zalantzak eta kezkak argitzeo tresna gisa erabili nahi dute aldizkaria: "Partaidetzari ateak ireki nahi dizkigu", diote.

### INFORMAZIO ASKO

Informazioak atal ezberdinak ditu: prebentziorako materialari buruzko aipamenak; gurasoen galderak –posta elektroniko bidez bidaliko direnak; aditurei egindako elkarriketak; udaletan gurasoentzat antolatzen diren ekintzak; eta gogoeta gai orokor bat, bukatzeo. Gainera, hiru adin-tartetan banatuko dute informazioa.

### DIPUTAZIOA

## Errenta aitorpena kanpaina hastear da

**GOIENKARIA > BERGARA**  
Gipuzkoako Diputazioak ondorengo egunotan abiaraziko du errenta eta ondarea aitortzeko kanpaina.

Autolikidazio proposamena onartzeko epea astebete barru hasiko da eta maiatzaren 8a arte egongo da zabalik. Errenta mekanizaturako hitzordua apirilaren 20tik ekainaren 12ra eskatu beharko da; eta aitorpenak aurkezteko epea apirilaren 21etik ekainaren 25era izango da. Edozein kontsulta egiteko honako zenbakira dei dezakenez: 902 10 00 40.

Aldundiak ahalegin berezia egin nahi du aurten iruzuarraren kontra. Iaz, guztira, 335,7 milioi euroko iruzurra azaleratu zuten.



Astelehenean Arrasaten egin zuten deialdiaren berri, Aralarreko, EAko eta ezker abertzaleko hainbat zinegotzik. GOIENKARIA

**OSPAKIZUNAK > ABERRI EGUNA**

## Deialdi bateratzailea egin dute Aberri Eguna ospatzeko

Ezker abertzaleak, Eusko Alkartasunak eta Aralarrek agiri bateratzailea egin dute Irunen ospatuko den Aberri Eguna joateko

**N. M. > ARRASATE**  
Domekan ospatuko da Aberri Eguna. Horren harira, ezker abertzaleko, Eusko Alkartasuneko eta Aralarko ordezkariek deialdi bateratzailea egin dute aurten.

Aberrri Eguna Irungo Ficoba erakustazokan ospatuko da, 11:30ean hasita. Ibilaldiak Santia-goko Zubia zeharkatuko du eta Hendaia Gaztelu Zahar fron-

toira helduko da. Bertan antolatu dira eguneko gainerako ekin-tzak: hitzaldia, bazkaria, erromeria eta beste.

### AGIRI BATERATZAILEA

Amets Arzallus bertsolariak idatzi du Aberri Eguna bateratzailearen agiria, *Mugak eta Zubiak* izenburuean. Bertan, Aberri Eguna aipatzen du: "Hala dugu

guk ere gure eguna, egun bat gure herriarena, herri txiki bat garen arren, iristen baitzaigu lurra zangoetaraino". Baita aberria bera aipatu ere: "Hizkuntza baten lurra da gure eremua, itxiturrik gabea, kultura berezi baten kolore guztiak dituen lurra, erreka zeharkatuta, eta zappi begiko zubi bat, sentimendu baten sorburua". Amaitzeko, zerurik ez, baizik eta zoru txikia eskatzen du agiriak: "Gure egunean, azken urteotako bidean, Santiagora goaz berriro, errores. Ez dugu zerurik eskatzen, zoru txiki bat baino ez".

**TURISMOA > ASTE SANTUA IBARREAN**

## Eskaintza zabala Aste Santua Debagoienean igaroko dutenendako

Museoek, mendiek, monumentuek eta gastronomiak etxeen gelditzera gonbidatzen gaituzte Aste Santuan

**N.M. > BERGARA**

Geroz eta gehiago dira Aste Santua etxeen igarotzen duten debagoiendarrak. Hala ere, etxeen ongi pasatzeko aukera badagoela erakusten digute turismo bulegoetako eskaintzek.

Bailara osoa ezagutu nahi duenak hainbat ibilbide eta monumentu bateratzen dituen bisita kontrata dezake.

Bestela, herririk herri badago museo eta natura ibilbide eskaintza zabala. Leintz Gatzagan, esaterako, eskualdeko barazki eta fruta kontserbagintza bisita daiteke, baita gatz museoa ere. Mendiak gustuko dutenak, berriaz, Dorletako Santutegira igo daitezke edota mendibilbideak aukeratu.

Oñatin, Arantzazuz gain, herrian zehar sakabanatuta dauden monumentuak ikus daitezke, eta baita Arrikutzeko kobak ere.

### PAINTBALLA ETA SEGWAYA

Ohiko ekintzez aspertuta daudenentzat, aldiz, paintballa eskaintzen da Arrasaten eta

segway ibilbideak antolatzen dituzte Eskoriatzan.

Oraindik ere, hil amaiera arte, bailara gastronomiaren bidez ezagutzeo aukera dago jardunaldi gastronomikoekin. 16 jatetxetan, pella, odoloste eta gaztaz osatutako menuak prestatuko dituzte. Aste Santua dela eta, hainbat jatetxe itxi egingo dituzte; beraz, aldez aurrelik deitza gomendagarria litzateke.

### Ordutegiak

#### ONATI

- > Turismo Bulegoa: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.
- > Bisita gidatuak egunero: Unibertsitatean: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00. Unibertsitate eta parrokian: 12:00etan eta 17:00etan.

#### ARANTZAZU

- > Debagoieneko Turismoa: 10:00-14:00 eta 15:00-18:30.
- > Bisita gidatuak, bulegotik: 10:30, 11:30, 12:30, 16:00 eta 17:00etan.

#### BERGARA

- > Turismo Bulegoa: Astelehenetik zapatura: 10:30-14:00 eta 16:30-19:30. Domeketan: 11:00-14:00.
- > Bisita gidatuak, bulegotik: 11:30etan eta 17:00etan.

#### LEINTZ-GATZAGA

- > Turismo Bulegoa: 10:00-14:00 eta 17:30-21:00.
- > Bisita gidatuak: 12:00etan eta 13:00etan.



**AP-I berriak Arlaban zulatu eta Gipuzkoa eta Araba elkarrengana hurbildu ditu**

...eta orain gertuago dauagu **Foru Aldundia** eraikitzen ari den "Gipuzkoako biribilgunea", sare integratu bat osatzen baitute errepide handi hauek:

- Urumeako autobidea
- Donostiako 2. ingurabidea
- Beasain-Bergara ardatza
- Eibar-Gasteiz autobidea (**AP-1**)

Gipuzkoar guztiok elkarrekin konektatuko gaituen biribilgunea

**Gipuzkoa, zurekin aurrera.**



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA  
AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS

## Aurtengo Aberri Egunari begira

**Julia Monge, Juan Ramon Garai, Natahly Pelage, Joxe Iriarte Bikila**  
(Gorripide ildoa-Zutik-eko kideak)  
Arrasate

Aldaketa eta burujabetzaren alde, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako 80 herriarrek 2009ko Aberri Eguna modu bateratuan ospatzeko deia zabaldu dute. Asmoa guztiz jatorra eta txalogarria iruditzenten zaigu. Egia esanda, urteak joan eta urteak etorri, aspalditik gabiltza antzeko asmoak aldarrikatuz nork bere modu eta afanean. Alabaina, aurten, ezin utzi aipatu gabe jasaten ari garen krisiaren nondik norakoak eta horrek burujabetzaren arloan zer-nolako eragina duen. Eta nola ez, ezin ahaztu, gure gizartea jazartzen duen, mota guztietako, zoritzarreko biolentziaren arazoa. Horregatik burutzazio hauek:

1. Izan ere, euskaldunok ez gara burujabeak, gure izaera nazionala ukatzen eta galarazten dizkigutenean bi Estatu desberdin menpe gaudelako. Baino, baita ere, bi Estatu horien

gaindi dagoen mundu-sistema kapitalistaren, ez gu ez inor — inperioek izan ezik — ezin delako guztiz independentea izan kapitalaren tiraniatik askatu gabe. Hots sozialismoa lortu gabe.

Beraz, aurren, Aberri Eguna eta Maiatzaren Lehena, abertzaletasuna eta internazionalismoa, Greba Orokorrarenkin bat egin behar dugu.

2. Mundu petrala gurea: Etekinaren izenean, kapitalistek alferrikako merkantzien eta merkantzia arriskutsuen gain-produkzioa antolatzen dute, eta bitartean planetako biztanleen 3.000 milioitik gora, gizadiaren erdia bada, egunero euro bat baino gutxiagorekin ez-moldatu beharrean dago. Mila milioi pertsona auzo txiroetan bizi dira eta 970 milioi gaizki elikatuak daude. FAOren zuzendariak azaldu duenez, nahikoa lirateke 15 urteetan 20.000 milioi dolar urtero jatekoa ziurtatzeko, baina ehunka milioi dolar espekulatzialeak irentsiak dira hondotik atera daitezen.

Negutegi efektuak sorratzenten duen gas kontzentrazioa klimaren berotzera eraman du jadanik eta goraka doa joera,

non eta aurreikuspenak zoratzen diren, eta itzulerarik gabeko puntutara eta kontrola ezinezko desorekara azkar iritsi gaitezkeela pentsatzen da. Ondorioak jadanik hemen ditugu eta larriagoak izan daitezke: uholdeak batzuentzat, idortea besteentzat, ekaitz suntsigarriak, biziun espezien, eta gorantz doaz kopuruak, desagertzea, bio aniztasuna errautsia, nekazaritzako krisiak. Produktibismo kapitalistak berarekin dakar, airearen, uraren eta nekazal ekoizpenen kutsaduraren bidez, gizaki osasunaren degradazioa.

Eta gure "mandatariek", azpiegiturak, azpiegiturak eta azpiegiturak! leloa behin berriro errepikatzu.

Kapitalaren nagusigoak dakarren hondamendiak egunerokotasun osoa ematen dio "sozialismo edota basakerraria" hautaketari. Gure herri honek etorkizuna izan nahi badu mundu guztiarekin izango du, ala ez du izango.

3. Herri guztiak dira pluralk, gurea barne. Barne aniztasun onarpenak gure nahia ez absolutizatzen garamatza, bestelako nahiak ukatu eta

arriskuan jarri gabe. Baino, era beran, gaurko marko estatalaren barruan gustuko egoeran aurkitzen direnen aldetik beste horrenbeste eskatzen dugu. Alegia, erabakitzeko eskubidearen aldeko ezein mugimendu demokratikoaren aurrean gutxiengo batek ez dezala blokeatu eta ez betoa jarri exijitzen dugu.

Nola egiten da hori? Gure ustez, autodeterminazio eskubidearen bitartez. Eskubide honek, ez baitu aldez aurretik suposatzen hautaketa jakin bat (Euskal Herriko independentzia edo Espainiako batasun trinkoa), euskal gizartearen barne arazoak askatasun osoz erabakitzeko duen adin nagusitasunaren onarpena baizik. Beste modura esan da. Errealitate nazional desberdinen arteko gatzazk demokratikoki bideratzeko, eta gizarte kohesionatu, integratu eta bere pluraltasuna begirunez ikusten duen gizarte bat lotzeko modu arrazotsua baita. Eta aukera hori ukatzea inposaketa da.

4. Bortxak eta inposaketa ez du tokirik gurean. Ezta ETArena ere. Heldu da garaia, ETARI eta Gobernuei, alde bakoitzari duen erantzukizuna-

ren arabera bereak eskatzeko. Zerbaitetan independenteak izateko beharrean baldin bagaude, auzi honetan gaude. Delako herriak, gizartea, herritarra hitz batez, bere esku hartu nahi badu gatazkaren konponketa, bere klabe propietan mugitu behar da. Zenbat eta lehenago egin, orduan eta sufrimendu gutxiago, alferriko biolentzia gutxiago eta errerespo gutxiago.

Aipamen berezia merezi eta gure gaitzespen erabateko emakumeen gizonekiko mendetasun-harremanak eta horren ondorio mingarri eta odoltsu den genero indarkeria. Biolentzia mota hori ezabatu gabe, nola eraikiko dugu gizon eta emakume libreen aberria askea? Ezin! Gora Euskadi Sozialista!

## OHARRA

Aste Santuko oporturak direla-eta argitaratu dugu gaur, eguztena, GOIENKARIA. Hurrengoa apirilaren 24an kaleratuko dugu. Asteheneko Goienkaria, baina, hilaren 20an argitaratu dugu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzea. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefona:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

## Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperativa Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Esteren Plazaola **Zuzendaritza nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailketak arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arrixtu Barruso, Jasone Zubala, Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirrezaaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarriko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundihano, Zortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 p.k. • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABAleta** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50  
Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210  
Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OJD erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udal



Bergarako  
Udal



Oñatiako  
Udal



Aretxabaletako  
Udal



Eskoriatzako  
Udal



Antzuolako  
Udal



Aramaioko  
Udal



Elgetako  
Udal



Leintz Gatzagako  
Udal

**75 dendatik eta  
200 produktutik gora.**

Debagoineneko  
denda handiena.  
Etxetik bertatik eskura.

MERKATUA.net

Debagoineneko denda



Angel Ipiña (Arrasate, 1948) Leintz aldeko Pastoral Barrutiko apaiz taldeko kidea da. Gas-

teizko San Viator eskolan irakasle da. Egun, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren,

hirugarren eta laugarren mai- letako neska-mutikoei erlijio eskolak ematen dizkie. Horren

harira, gazteek Aste Santua nola bizi duten kontatu digu ondorengo lerroetan.

Angel Ipiña > Apaiza

# "Aste Santua kristau fedearren muina da; alegia, kristau garenon 'Aste Nagusia'"

A. EZKIBEL / M. BIKUÑA > ARRASATE Bihar hasiko da Aste Santua, eta domekara arte askotariko elizkizunak egingo dituzte ibarreko elizetan eta monasterioetan. Aste Santuaren jatorriaz, esanahiaz, ohituraz eta urte hauetan izan dituen aldaketez egindugu berba Angel Ipiña Arrasateko apaizarekin.

**Ze esan gura du Aste Santuak? Ze ospatzen da?**


Pazko ospakizunaren jatorria israeldarrek udaberrian ospatzen zuten jai batean kokatu behar dugu: Pexah izeneko jaian, hain zuen ere. Pexah hitzak *igarrötzea, jauzi egitea* esan nahi du.

Udaberriaren hasieran artzainek eta nekazariek zituzten ohituretak dator jai hori. Udaberri hastean, neguko larreetatik udako larreetara joan aurretik, bildotsari lepoa mozten zioten artzainek eta haren odolaz kanpalekua zipritzindu egiten zuten, gaitzak eta ezbeharrak kanpalekuak eta artaldearen gainetik *jauziegiteko*, kalterik egin gabe. Nekazariek, berriz, lehenengo gari aleak hartu eta legamiarik gabeko ogia egiten zuten, legamia zaharra bota ondoren. Egipto esklabo zirela, Jaunak askatu egin zuen bere herria morrontzapezik. Askapen hura erabatekoia izan zen israeldarra Itsaso Gorrian zehar oinak busti gabe igaro zirenean eta egiptoaren gudarostea urpean galdu zenean. Gertakari nagusi hori ospatu ohi dute israeldarrek Pazko jaian.

Kristauendako Pazko jaiak esanahi berezia du: Jesus heriotzatik piztuerara igaro dela ospatzen dugu. Hau da, Salbamaren Historiako gertakaririk handiena da, historia osoaren gailurra. Gertakari nagusi hori, ebanjelioek diotenez, juduen Pazko jaiaren inguruan izan zen. Aste Santuan Jesus gure Jaunaren heriotza eta piztuerera ospatzen dugu, kristau fedearren muina eta oinarria. Aste Santua kristauon *Aste Nagusia* da.

**Gure ibarrean sustaituta dagoen ospakizuna da?**

Egun hauetan, Gabonetan gertatzen den moduan, inoiz baino jende gehiago ikusten da elizetan. Urteko gainerako igandetan mezara joateko ohiturariak ez duen jendea ere hurbiltzen da egun hauetan elizara, elizkizun batera edo bestera. Erramudomekako eta Pazko-domekako elizkizunek jende asko erakartzen dute.



Angel Ipiña apaiza.

GOIENKARIA

Aste Santuko liturgia ezberdina da, asko zaintzen da-eta. Era berean, parrokietako koruek parte hartzen dute elizkizunetan. Egia esan, denak laguntzen du ospakizunak edertzen.

**Badaude kofradiak ibarreko herrietan?**

Nik dakidanez, bakarra edo bakarrenetarikoa Oñatin dago; hain zuen ere, Sakramentu Santuaren kofradia. Horko kideek kapa beltz batetikin parte hartzenten dute hainbat elizkizunetan. Gainea, orain dela gutxira arte Vera Cruzeko kofradia ere bazegoen.

Bestalde, ez dakit prozesiorik egiten den Debagoieneko herrietan. Eskoriatzan hainbat urtean elizan bertan egin dute prozesioa Egubakoitz Santuko elizkizunen; hain justu ere, Jainkoagurtu aurretik. Duda barik, une hunkigarria da kristau askoren dako.

## PARTE-HARTZEA

**"Igandeetan mezara joaten ez direnek Aste Santuko elizkizunetan parte hartzen dute"**

## OHITURA

**"Gaztetan elizarik eliza ibiltzen ginengoa hango santuak ikusi eta otoiitz egiten"**

## GAZTEAK

**"Gazteek jakin beharko lukete Aste Santua zer den, gure kulturako parte nagusia da-eta"**

**Ze sinbologia erabiltzen dituzte prozesioetan?**

Gehienek lotura estua dute Jesusen bizitzako azken unean: azken afaritik hasi eta Jesu-sen gorputua gurutzetik jaitsi arte.

**Asko aldatu da Aste Santua ospatzeko modua azkeneko urteetan?**

Egia esan, ez da askorik aldatu. Ni San Isidro elizan mezamutil nenbilela lan asko egiten genuen. Umetan Aste Santuko egunetan kaleko giroa serioagoa zen. Bestetik, elizarik eliza ibiltzen ginengoa santuak ikusi eta otoiitzean. Dena den, garai haietan ez ziren gurutze-bideak egiten kalean, egun Arrasaten eta Aretxabaletan egiten diren moduan.

**Gaurko gazteek badakite zer ospatzen den Aste Santuan?**

Denetarik dago. Dena den, Aste Santua gure kulturako par-

te da, eta alde horretatik zer den jakin beharko lukete. Batzuk Jau-nartzea egin aurretik katekesian ibilitakoak dira. Kristau katolikoak izan eta Elizarenaganako atxikimendua duten gazteek badakite zer ospatzen dugun.

**Badago lehen egiten zen ospakizunik gaur egun galdu dagoena?**

Urte batuetan Gazte-Pazkoak ospatu genituen Mendiolan. Ia 200 gazte eta gaztetxo biltzen ginen lau egunez hango zelaietan. Otoitzaldiak, taldeko lanak eta hausnarketak eta elizkizunak egiten genituen. Eskertzekoa zen mendiolarren harrera, lau egunez *okupa* modura ibiltzen ginente elizan eta zelaietan. Orduko kritika zen gazteak Pazko-hiru-ren euren kristau elkartekin ospatu beharrean Mendiolarra joaten zirela, eta elkarre sena galtzen zela. Hura amaitu egin zen, eta, zoritzarrez, gazte asko ez ziren parrokietan txertatu.

20 urte baino gehiago pasatu dira eta Eskoriatzako parrokian mantendu egiten da topaketa haietako une garantzisuenetako bat: gurutzearen inguruko otoitzaldia. Aurten ere 21:00etan bilduko gara Eskoriatzako parrokiak, eta garai batean Mendiolan egondakoak hurbiltzen dira.

**Gurean, ze prozesio ikusteko aukera dago?**

Nik dakidanez, ez dago prozesiorik Debagoienean.


**Ibarrean ez, baina beste toki batzuetan eskaintza turistiko bihurtu dira prozesioak. Ze iritzi duzu?**

Eskaintza turistikoa izan daitete turista moduan doanaren dako. Ez dut uste partaideendako hori denik arrazoi nagusia; alegia, prozesioa eskaintza turistiko bihurtzea. Baina denetarik egingo da. Dena den, halako prozesioetan parte hartzen duten askok arrazoi erlijiosoengatik egiten dutela uste dut.

**Kofradia batzuek abortuaren aurka daudela erakutsiko dute prozesioetan.**

Abortuaren gaia nahiko serioa da arinkeriaz ibiltzeko, ertz askoko gaia da-eta. Gai hori ezin da planteamendu ideologiko hutsetara murriztu. Erakunde bakoitzak ikusi beharko du nola kudeatzen duen izan ditzakeen barne gatazkak, gai honi edo beste batir buruz.

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

### AZKARATE AROZTEGIA

Bergara  
 • Ateak, leiohoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaleak, sukaldeak  
 • K-21  
 Telleria 19 B02-B03  
 T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta  
 • Telebista, audio eta bideoa  
 Salmenta eta konponketa  
 • Instalazio elektrikoak  
 • Atezain automatikoak  
 • Antena kolektiboak  
 Otalora 14  
 T: 943 79 16 10  
 F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate  
 • Instalazio elektrikoak  
 • Antena kolektiboak  
 Zerkaosteta 15  
 T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83  
 F: 943 79 68 21

### ARETXARGI

Aretxabaleta  
 • Instalazio elektrikoak  
 Belorrieta 15 behea  
 T: 943 532 628 / 645 734 032  
 F: 943 532 629  
[aretxargi@euskalnet.net](mailto:aretxargi@euskalnet.net)

### BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati  
 • Erreformak orokorrean  
 • Marka guzietako etxetresna elektronikoen konponketa  
 Kale zaharra 60 - 3 erd.  
 T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

## RELE

Eskoriatza  
 • Instalazio elektrikoak  
 Santa Ana 12 eta 17  
 T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12  
 F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL  
 Arrasate  
 Meatzerreka auzoa  
 T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59  
[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza  
 • Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak  
 • Kontratak  
 • Enpresen mantentze-lanak  
 Intxartxueta 5  
 T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22  
 F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

ARETXABAleta ITURGINTZA  
 Aretxabaleta  
 • Sukalderako eta bainugelarako altzariak  
 Santa Kurtz 24, behea  
 T: 943 79 17 53  
 F: 943 79 17 53

## EGIA ITURGINTZA

Arrasate  
 Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
 T: 943 77 01 85

## IMANOL ITURGINTZA

Arrasate  
 • Iturgintza  
 • Berogailua eta gasa  
 • Bainugelak  
 Kale Txiki 9 behea  
 Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza  
 • Iturgintza eta gasa  
 • Berogailuak eta petrolio-produktuak  
 • Klimatizazioa  
 Aranburuzabala 15  
 T: 943 71 47 14 / 606 007 369  
[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## TXORROTA

Arrasate  
 • Berogailua eta gasa  
 • Galdarak aldatzea  
 • Obra integralak  
 • Zaharberritzeak  
 Bolibar doktorea 5, behea C  
 Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17  
 F: 943 77 17 13

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta  
 • Instalazioen mantentze-lan guztiak  
 • Berokuntza eta gasa  
 • Aire girota eta haizeztatzea  
 Basabe industrialdea B-3  
 T: 943 77 19 88  
 F: 943 79 59 97

## VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta  
 • Hargintza lanak  
 • Bainugelako altzariak  
 • Berogailuak  
 • Erretenak ipini eta garbitzea  
 Santa Kurtz 7, 3. ezk.  
 Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

ARGI-PLASTIC  
 Arrasate  
 • PVC leiohoak  
 • Aluminio termikoko leiohoak  
 • Poliuretanozko leiohoak  
 Zigarrola 1- 8 pab.  
 Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18  
 F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

## ION LEIHOAK

Arrasate  
 • Metal aroztegia, PVC eta aroztegia  
 Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia  
 T: 943 79 11 35  
 F: 943 77 31 20

## YOSU THERMIK

Arrasate  
 • Leio eta ate isolatzaleak  
 • PVC leiohoak  
 • Aluminio termikoko leiohoak  
 • Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)  
 Kataide poligonoa 4 Pab.  
 Tel: 943 77 01 57  
 F: 943 77 03 21

## IZBAR

BERGARA  
 • Leio eta ate isolatzaleak  
 • Aluminio termikoak, PVC mota  
 ezberdinak  
 • Kontraleho errustikoak eta mallorkinak  
 • Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.  
 San Lorentzo industrialdea,  
 Urarte kalea 20  
 Tel: 943 79 69 91

## LOREZAINZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta  
 • Barruko zein kanpoko lorenzaintza  
 • Ureztatzezenko sistemak  
 • Loreontzi-euskarriak eta balkonerak  
 Basabe poligonoa D-2-1  
 Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98  
 F: 943 79 78 45

## MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA  
 Arrasate  
 • Pintura orokorrean  
 • Pareztatzeak  
 • Errrotulazioa  
 Maitena 3-1.  
 Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

# Herriak

Arrasate > 14-15 Bergara > 19-23 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27  
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



## > ARRASATE

Zerkaosteta kaleko azken lanak bukatu dituzte **10**



## > BERGARA

Arrizuriagaren truke Seminarioa eskatuko du Udalak **12**



## > ARETXABAleta

Airearen kutsadura neurten dihardute berriro **15**



## > ESKORIATZA

Estatuko Fondoarekin ordaindutako lanak, abian **16**

BERGARA > AZPIEGITURAK

## Bergara eta Antzuola herritarren parte-hartze gune baten izango dira

### GI-631 ERREPIDEA

Antzuola eta Bergara ukitzen dituen Azkoitia eta Urretxu arteko bidea da eztabaidagai

### GEHIAGOTAN

Ibarreko bi udalek eskatu diote Aldundiari parte-hartze ekimen "gehiago" antolatzeko

### LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Bergarako eta Antzuolako udalek onartu egin dute egunotan Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako NIP edo herritarren parte-hartze eta iritzi-emate gune baten izatea. Gaia da bi udalerrion lurrik zeharkatzen dituen GI-631 errepeidea eta berorren etorkizuna; Bide Azpiegitura Sailak hainbat aukera aurreikusen ditu errepeide horretarako, eta 50 herritarren ikuspuntuak batu nahi ditu.

Hori bai, Foru Aldundiaren eskemari hainbat aldaketa proposatu dizkiote; bi udalek aldaketa berberak proposatu dituzte. Hauek dira proposamenok: batek, herritarrek hartzen duten erabakia loteslea izan dadila (oraingo formulazioaren arabera, ez da hala), eta gogorarazten dute honakoa: "Debagoienean badaukagu NIP deiturikoen esperientzia, Eibar-Gasteiz autobidearen proiektuarekin jarri ziren martxan eta hiritarrek lan eta ahalegin handiak egin ondoren, ez zituzten beraien proposamena ezertarako aintzat hartu"; bestetik, euskaldunon eskubideak berma daitezela prozesu osoan; hirugarrenik, NIPEko partai-deen erdiak emakumeak izan daitezela; eta, azkenik, "herrialdearentzat eta gure herriarentzat garrantzitsuak eta estrategikoak diren gainontzeko proiektuetan parte-hartze prozesuak abiatu ditzala". Horiek komentatzeko batzartzekoak ziren atzo, martxena, Bergarako alkatea eta Foru



GI-631 errepeidea, Bergarako Elosu auzotik.

JOSETXO ARANZABAL

### KONTUAN HARTZEKO

#### Postontzia, iritzia emateko beste modu bat

NIPa zelan sortu eta bideratu Mondragon Unibertsitateak diseinatu du, eta, arduradunen esanetan, eurek aurreikusitako epeak betetzen dabilta. Horrela, oraingo astean da aukeratzeko Udal bakoitzak, zozketa bidez, NIPEan parte hartuko duten (eurak ados egen ezker) herritarrek. Foru Aldundia jarriko da eurekin harremanetan. Handik gutxira, apirilaren 14an hasi eta hilaren 28ra arte, udaletxeetan eta Interneten, postontzi pertsonal bat eta birtual bat ipiniko dute, hiritarrek euren proposamenak bota ditzaten. Hizlari gisa parte hartzeko aukera du edozein herritar edo taldek, eta horiek euren datuak utzi behar dituzte postontzian. Postontzi birtuala etengabe egongo da zabalik. Beste tramite batzuk egin eta gero, pauso garrantzisuna, hiritarren batzarrak, maiatzaren 9an hasiko dira: egun horretan, errepeidean bisita gidatua izango dute, eta maiatzaren 12tik ekainaren 10era, bi taldean banatuta bost batzar. Hiritarren Txostenak emateko data uztailaren 13an finkatu dute.

Azpiegitura diputatua. Osoko bil-kuran esan zenez, "puntu batzuk" onartzeko gertu dago Aldundia.

Aldaketok adostasuna piztu dute udaletan. Hala, atzoko oso-koan, Bergaran, aho batez onar-tu ziren.

### INPLIKAZIOA

Bergararen eta Antzuolaren parte-hartzea ez da handia izango, errepeide horrek zeharka ukitzen baititu bi herriok; Azkoitia eta Urretxu batzen ditu, eta bi horietako eta Zumarragako hirrarek izango dute pisu handien; izan ere, Bergarako alkateak berak onartzen duen moduan, "guk errepeide hori ez dugu era-

biltzen". Hala, Aldundiak proposatzen du Antzuolako hiru herriar eta Bergarako bederatziz iza-tea NIPEan. Hala ere, egitasmoak badu bere garrantzia, izan ere, esan bezala, bi alkateok adi-bidetzat ipini diote Aldundiari proiektu hori, halako gehiago eskatzezkero. Antzuolako alkate Pedro Iturbek dioen moduan,

"GI-631 ez da eztabaida handia sor-tuko duen proiektua, baina badaude beste batzuk eztabaida sortzen dutenak: errauskailuare-na, adibidez".

Hortaz, proiektuaren eragina bereziki handia ez izan arren, Antzuolako eta Bergarako udalak implikatu egin dira.

**OBRAK** > ZERKAOSTETA KALEA

# Zerkaostetako azken lanak bukatu dituzte

Ezustekorik ez bada, gaur (eguaztena) arratsaldean zabalduko dute atzera ere kalea

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Herenegun, astelehena, itxi zuten Zerkaosteta kalea ibilgailuendako, eta, azken ordukorik ez bada, gaur arratsaldean zabalduko dute berriro.

Konpontze obrak egiten ibili dira martxoan (lehen fasea) eta apirilean (bigarren fasea) kale horretan. Izan ere, kalea orain gutxi berritu badute ere, hainbat arazo izan dituzte galtzada-harriarekin. Hala, oraindik obra garantian dagoela aprobetxatu du Udalak konponketa lanak eragi-

teko berrikuntza obra egin zuen enpresa berari, Amenabarri.

Lanok bi fasetan egin arren, ez dute obra importanterik egin, baina, kalea guztiz ez ixtearren erabaki dute hala egitea.

**OINEZKOEK LEHENTASUNA DUTE**

Kontuak kontu, behin obrak bukatuta, lehengora bueltatuko da Zerkaosteta. Hau da, han ibilgailuak ibili ahal dira, baina lehentasuna dute oinezkoek; horregatik daude galtzada eta espaloia maila berean.



Martzeneko eguraldiak zaidu egin zuen Zerkaostetan lanean zihardutenen jarduna.

U.M.

Zirkulazioaren noranzkoari dagokionez, bi noranzko ditu kaleak. Goizez, alde zaharra zaba-lilik dagoenean, Maalako errebal-letik sartu ahal da eta Kontzezi-notik irten. Arratsaldean, berriz, Zerkaosteta ixten dituzten piboteak igota daude. Beraz, arratsaldean Kontzezinotik sartu ahal

da Zerkaostetara; eta gero, ate-ratzeko bide bera segitu behar da: Zerkaostetako garajeen parean buelta hartu eta Kontzezinora.

**GAIZKI APARKATUTA**

Bestalde, aparkaleku batzuk ere egokitu dituzte Zerkaostean, Itur-bide egoitzatik Lasagabasterre-

raino, kalearen eskumako alde-an. Egunez zamalanak egiteko dira; beraz, zamalanen ordute-gia bukatu arte ezin da han apar-katu. Baina aparkaleku arauak ez dira behar bezala errespetatzen inguru hartan. Bereziki, batzuk kalearen ezkerreko aldea ere era-biltzen dutelako aparkatzeko.

**ERLIJOIA** > ASTE SANTUA

## Egubakoitz Santuan, gurutze-bidea

U.M. &gt; ARRASATE

Datozen egunotako jaiegunen jatorria sarri ahazten dugun arren, kristau fedearren muinean dago: Aste Santuan. Erram-igandean hasi, eta Eguen, Egubakoitz eta Zapatu Santuak dira egunik esanguratsuenak. "Gure fedearren misterio sakonenetara gerturatzen gara", azpimarratu du Jon Molinak, Arrasateko parrokoetako batek.

**OSPAKIZUNIK JENDETSUENA**

Ondorioz, egunotan elizkizun bereziak egingo dituzte parro-kietan, bakoitza dagokion ordu-tegian (ordutegi zehatza dago eskelak izaten diren puntuetan).

Horian artean jendetxuena Egubakoitz Santuko gurutze-bidea izaten da: "Goizez, Porta-loitik Santa Barbara da gurutze-bidea, 08:00etan. Ospakizunik

ugariena izaten da", aditzera eman du Molinak. "Jesusen 14 egonaldi edo pauso horiek berres-kuratuko ditugu", zehaztu du.

Gurutze-bidearekin lotuta, bitxikeria bat ere kontatu du apaizak: gurutze-bidea markatzeko harrizko gurutzreak zeude-la lehen herri gehienetan, nahiz eta orain leku askotan galdua dauden. "Mondragoena bazeuden gurutze horiek. Bedoñara bidean, San Josepera bidean. Desa-gertu egin ziren Bedoñako bide berria egin zutenean. Bada, horie-tako bat jarrita dago elizaren kanpoaldean, Iturriozt kalera begira", kontatu du Molinak.

**GAUERDIAN BEHARKO LUKE**

Bestalde, Aste Santuko ospakizu-nen artean, zapatu gauekoan ere badira pare bat bitxikeria: "Larunbateko ospakizunak

gauerdiari hasi beharko luke. Orain, arratsalde-iluntze aldera pasatuta dago. San Juan parro-kian, adibidez, 22:00etan egingo dugu. Baina beharko luke gauer-dian, gaubeila delako. Erroman eta halako lekuetan oraindik hori errespetatzen da", dio Molinak.

**BATAIOAK EGITEKO ONENA**

Hori, batetik. Bestetik, Molinak kontatu du Pazko gaubeila dela bataioak egiteko urteko egunik aproposena: "Aretxabaletan-eta egin izan dira, nik ere egin izan ditut orain gutxi. Ez dira asko egi-ten arrazoi praktiko batengatik: berandu delako eta ez delako umeendako ordurik egokiena. Zergatik den bataoietarako egu-nik aproposena? Bada, kristau fedeak erakusten duelako bataio-arekin Jesusen heriotza eta piz-tueran parte hartzen dugula".

&gt; KRISIA

### Bihar, eguna, ez da izango eskaintza berezirik Arrasate Bizirik elkarteko tabernetan

Aste Santuko jaiegunak direla-eta, Arrasate Bizirik elkartekoak jakinarazi du bihar, eguna, elkarteko tabernariek ez dutela egingo egueneroko eskaintzarik: ardo ondua eta pintxo euro baten tru-ke. Aste Santu ostean segituko dute eskaintza hori egiten.

&gt; AISIALDIA

### Zaldian ibiltzera eta beste datorren astean, herriko gazte txokoetatik

Apirilaren 15etik 18ra arteko egitaraua antolatu dute herriko gaz-teei aisialdi eskaintza emateko. Apirilaren 15ean saskibaloi txap-elketa egingo dute; 16an, rafting egitera joango dira; 17an pata-ta tortila lehiaketa egingo dute eta 18an zaldian ibiliko dira.

&gt; AISIALDIA

### Aurtengo udalekuetan izena emateko epea zabaldu du Txatxilipurdi elkartea

Udalekuetarako izenemate epea zabalik dago. 2-10 urte artekoendako udalekuak herrian egingo dituzte. 10-16 urtekoendako, berriz, udaleku itxiak antolatu dituzte. 10-12koendako Etxarrin; 12-14koendako Orion; eta 14-18koendako Euskal Herritik buelta.

## ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko  
hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

San Andres Auzoa 10. pabilioia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriozt, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

DOKEA > ELKARTEEN ARTEKO TXAPELKETA

# Ohiturari eutsiz, 29 urte beteko ditu doke txapelketak

SUDC elkarteak antolatzen duen txapelketak ez du hutsik egingo; etzi izango da, 10:00etan hasita. Gero, 20 kilo sardina erreko dituzte, bertan jateko

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE Arrasaten historia duen jokorik badago, hori dokea da. Gure arbasoen antzinako jokoak, frogatuta dago Erdi Aroan, behintzat, gure ibarrean jokatzen zela. Ezin da esan gaur egun arrasatearentzat denbora-pasa erakargarriena denik, baina zaleek ez dute urtero hitzorduan kalerik egiten.

Urtero biltzen dira Kondekua zelaian –Monterron parkearen azpian– goiza dokean jokatzen pasatzeko. Hala, aurten, etzi dute eguna: hilaren 10ean, goizeko hamarretan. Txapelketa SUDC elkarre gastronomikoak antolatzen du, eta, adierazi dutenez, "hel-



Amaieran, elkarteetako bikote onena eta Udaleko bikotea lehiatzen dira; eta galtzaileak ordaintzen ditu sardinak. SUDC

burua da gure herriko antzinako ohitura zaharrari eustea". Elkarteen arteko lehia izaten da, eta elkarteko bakoitza baziak bikote batek ordezkatzen du. Bikote onenak Udaleko ordezkaritzaren aur-

ka jokatuko du amaieran. Eta, Erdi Aroan egiten zen moduan, apusturik ez da faltako: galtzen duenak, jokalariek eta publikoak jango duten 20 kilo sardinak ordaindu beharko ditu.

**HARROBIA DOMEKAN ARITU ZEN**  
Dokeak badu harrobia: joan den domekan jokatu zuten gazte mailako 25. doke txapelketa. Irabazleak Oiana Uribarren eta Ahini-ze Uribarren izan ziren.



Uruguaiarrak nagusi errugbi lagunartekoan

Joan den zapatuan errugbia izan zen protagonista Mojategin: lagunarteko partidu bereziak jokatu ziren. Hiru taldeko hartzutzen parte: Arrasatek, Old Boys taldeak (Uruguay) eta Euskadik. Euskadiko selekzioarekin hiru arrasatear aritu ziren: Xabier Arregi, Jon Lizaur eta Ander Heriz. Uruguaiarrak izan ziren nagusi, bi taldeek euren bi partiduak irabazi zituzten-eta.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK  
**AGR**  
Garcia Rípa  
ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA  
Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**S. CARRASCAL S.L.**

## Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

**UGARAN**  
Jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**KONTRATAK IRVROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK  
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

bere ustez



Antxon Mendizabal

G-20 eta Gu

**N**abaria izan da mundu mailako erreakzioa krisiarene aurrean. G-20 barruan daudenek erabaki dute 500.000 milioi dolar Nazioarteko Moneta Funtsean sartzea eta beste 250.000 milioi dolar Munduko Bankuari igortzea; baina orain arte hauek aplikatutako logika liberala eraldatu gabe. Proposatu dute munduko merkatal erakundearen ordez Nazioarteko Merkatal Foroa gauzatzea; baina munduko merkatal elkar trukeen liberalizazio berdinarekin jarrai-

**"Aldaketa G-20aren eskuetan uzten badugu, jai daukagu; aldaketa guri dagokigu"**

tzeko asmoaz. Erabakitzako beste neurriak ere oso mugatuak gelditzen dira egoera larria eta arazo sakonen aurrean.

Aldaketa G-20aren eskuetan uzten badugu, jai daukagu. Aldaketa guri dagokigu. Boteretxoengandik beste muturrean gauden langile, herritar eta herriek, aberastasun banaketa, denontzako enpleguak, beste eredu ekonomiko eta soziala eskatzen dugu. Eta baita herrien askatasuna ere.

Eta horretarako borrokatu behar dugu. Egoerak erantzun zabala eskatzen du. Eta maiatzaren 21ean, LAB, ELA, ESK, STEE, EHNE eta Hiru sindikatuek planteatutako greba, beharrezko erreferentzia izan daiteke. Joan gaitezken denok greba egitera.

UDALA &gt; AZPIEGITURAK

# Seminarioa Arrizuriagaren truke onar dezan eskatuko dio Udalak Patronatuari

Seminarioak duen kokapenagatik udal zerbitzuak kokatzeko aparteko lekua dela uste dute, eta herriak duen kultura ondarearekin lotutako azpiegiturak kokatzeko beharra ase dezakeela

**M. BELASTEGI / A. EZKIBEL** > BERGARA  
Asteleheneko ezohiko osoko bilkuraren udalbatzak onartu egin zuen UNED-Bergara Patronatuari eskari bat egitea: Errege Seminarioa Patronatuaren jabegokoa bihurtzen den unean, onar dezala eraikin hori Udalaren jabegokoa den Arrizuriaga jauregiagatik trukatzea. Eta udalbatzak onartu egin zuen, Udal Gobernu taldearen, PSE-EERen eta EAren aldeko botoekin. EAJ alderdiak, berriz, kontra bozkatu zuen.

Eskera horrekin batera, Udalak beste hau ere eskatuko dio Patronatuari: truke hori gauatzeko garatu beharreko espediente administratiboa lehenbailean abiaraz dezala.

Horrekin guztiarekin, Patronatu osatzen duten partaide guztiak bidaliko dizkiete eskaerok. Hain justu ere: Patronatuaren lehenbakari Markel Olanori eta kide diren Foru Aldundiko Euskara eta



Museoa, liburutegia... jartzeko nahi du Udalak Seminarioko eraikina. GOIENKARIA

Kultura diputatu Maria Jesus Aranbururi, Kutzako ordezkari Karlos Huiziri eta UNEDeko zuzendari Juan Jose Alvarez.

#### APARTEKO LEKUA

Udal Gobernuak ez du zalantzak Errege Seminarioa udal eraikina izateak duen garrantzia, eta ideia hori kontrastatzeko egindako prozesuan –iaz herriko 250 eragilekin batzartu ziren– herritarren aldetik oso harrera ona izan zuen aukera horrek.

Seminarioak duen kokapenagatik, herri erdi-erdian, udal zerbitzuak ezartzeko aparteko tokia dela uste dute, eta, horrekin batera, kultura eta ondarearekin lotutako hainbat azpiegitura –museoa, liburutegia...– kokatzeko beharra aseko lukeela.

#### EAJ EZ DATOR BAT

EAJko zinegotzi Rafa Amasorrainek ezezkoa azaltzeko orduan esan zuen ez dutela trukea ulertzten: "Arrizuriaga Uda-

larendako leku ona da. Gainera, UNED ondo kokatuta dago dauzkan beharrak asetzeko, eta ez dugu truke beharrik ikusten".

Hori dela eta, Barruso alka-teak erantzun zion udal ikus-puntutik planteatzen dutela trukea eta Seminarioa udal erabilerarako egokia izateaz gainera, "herriko korapilo asko askatuko" liratekeela. Eta gaineratu zuen trukea ez dela eskatuko Patronatuari mesede egiteko, "baizik eta herriarendako ona delako".

Publikoan eserita zegoen Iñigo Juaristik ere hartu zuen hitza eta hark ere trukearen kontrako jarrera azaldu zuen. Haren ustez: "Trukaketa hori egiten bada, herriak bi aldetatik galduko du: batetik, ondarea galduko du (Arrizuriaga); eta bestetik, bi edo hiru milioi euroko kaltea izango du Udalak gaur egun UNED dagoen tokia egokitzenten". Eta hauxe gaineratu zuen: "Seminario osoa egokitzea 5,6 milioi euro inguru da. Eta Udalak eraikina hartuz gero gastu hori ere bere gain hartuko du, eta trukea egiten ez bada, berriz, UNEDek".

Barruso alka-teak hauxe erantzun zion: "5,6 milioi euro zuek ateratako kopurua da". Eta honakoa gehitu zuen: "Seminario osoaren konponketa ez du Udalak bere gain hartuko; izan ere, Aranzadi ikastolak erabilten duen zatia hark ordainduko du. Bestetik, trukea egin ala ez, elizaren partea Udalak konpondu beharko du".

bere ustez



Unai Lopez

## 21. mendea lidergoaren egarri

Zutabe honetan idazteko urtarrileko nire txan-dan Obamaren kargu hartzeari buruz idatzi nituen zenbait lerro. Bi hilabete eta gero, AEBetako presidente berriak agerraldi zein edozein bidaia egiten duela, inguruak asaldatzen jarraitzen du.

Bere lana momentuz epaitu gabe, Obamaren etorrerak mundu mailan suposatu duen lidergo eta erreferente baikorrak 21. mendeko zurrubrido politikoan parekotasunik ez duela onartu daiteke. Adibide argitzat G-20a dela eta Euro-

#### "Tamalgarria da Zapateroren karisma falta eta ahultasuna sasoi estu hauetan"

para egindako bidaian ikusitako hamaiaka irudi.

Komikietako heroia amerikar bat balitz bezala agurtua, Europako gainontzeko politikarien begirada eta irribarren sustatzaile, azken finean, urte dezente dira horrelako lider sendorik ez genuela gure inguruan. Eta krisialdi honek sartu gaituen tunel ilun honetan karismadun lider baten erreferentzia izateak egunero-ko arazo denen konponbide ez bada ere, etorkizuna mesfidantza jositako beste esku batzuetan izan genuela gogorarazten digu behintzat. Mesfidantza aipatzean Zapatero jaunak G-20an eta krisialdi honetan oro har izandako papera datorkit burura, tamalgarria bere karisma falta eta ahultasuna sasoi estu honetan.

## BERGARAKO UDALA

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutako betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskala aldatzea:

1. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.

Hori guztsia, Udalbatza Osoak 2009ko martxoaren 30eko bileran hartutako erabakiari jarraituz egiten da. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2009ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau 30 lanegunez jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek expedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkezta ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamazioik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berrikin hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2009ko martxoak 31  
Alkatea



BERGARAKO UDALA

#### > GAZTEAK Inter-railaren gaineko hitzaldia egongo da apirilaren 16an

Gazte Informazio Guneak hainbat ekitaldi antolatu ditu apiril eta maiatzera. Ekitaldiok antolatu dituzte maiatzean egingo duen 10. urtemugaren harira. Lehen ekitaldia apirilaren 16an izango da: Jon Ruiz de Eginok eta Iñaki Goenak inter-railaz arituko dira, 18:30ean, kultura etxearen.

#### > IRTEERA San Joxepeko Leonera astebeterako irteera antolatu dute irailerako

Leonera bidaia-Ibilbide Jakobeoa delako izena eman diote irteerari eta irailaren 20tik 7ra izango da. Leonen hartuko dute osta-tu eta handik hainbat irteera egingo dute, besteak beste Burgos, Astorga, Salamanca, Toro eta Palentziara. Izenematea zabalik dago.

# EDEL TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

**ARRI**  
Industri hornidura  
*Latigilloak*

Telleria 2, BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoak: 656 78 64 84

Unai Asurmendi > Udaleko Kirol teknikaria

# "Kirol praktika zaitzen duen mehatxu bat familia eta kirola uztartzeko zaitasuna da"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA  
Apirilaren 1ean Diputazioan izan zen Unai Asurmendi Kirol teknikaria, familia eta kirolaren gainean berba egiten. Gai orokorra gaur egungo kirol eskaiza zen; eta Asurmen-dik, bereziki, kirola eta familia nola uztartu landu zuen.

Diputazioan izan zineten Gipuzkoako kirol teknikariok. Zertaz berba egin zenuten?

Gipuzkoako kirol teknikario eta Aldundikoek elkarrekin egindako jardunaldia izan zen. Gaur egungo kirol eskaiza aztertu genuen, eta horren barruan zeintzuk diren mehatxuak eta aukerak eskaiza aldatu edo moldatzeko.

Horren barruan, kirol praktika zaitzen duen mehatxu edo zaitasunetako bat da familiako beharrak edo premiak. Hau da, jendeak kirola ez egiteko aitzakieta bat da ezin duela familiako bizimoduarekin uztartu.

Eusko Jaurlaritzak egindako azterketa baten emaitza da?

Bai, 2008an Eusko Jaurlaritzak kirol ohituren azterketa egin zuen eta azterketa horren ondorioak jaso nituen. Hortik abiatuta, Aldundikoek galdeketa egin zuten eta konturatu ziren Gipuzkoan bi herritan gai hori jorratzen zebiltzala; horietako bat Bergara da.

Ze behar ikusita erabaki zen Bergarako kiroldegian ludoteka jartzear?

Hasiera batean, haurtzaindegi jartzeko asmoa zegoen; baina eremu horretan ez ziren haurtzaindegi baten premiak betezen. Hala ere, ikusten zen umea uzteko nolabaiteko eremu bat eskaini behar zitzaiela gurasoei kirola egitera etorri gura baldin bazuten. Aukera ezberdinak aztertuta, ludoteka egitea erabaki izen.

Ze zerbitzu eskaizten ditu ludotekak?



Unai Asurmendi, Kirol teknikaria.



San Antonio kaleko 7 eta 9. zenbakia.

A.E.

**"Kirola eta familia uztartzeko beste bide bat umearekin batera kirola egitea da"**

**"Ludoteka hezkuntza proiektu baten barruan sartuta dago, ez da parking bat"**

Esan behar da ludoteka ez dela parking bat, hezkuntza proiektu baten barruan sartuta dago. 3-12 urte bitarteko umeak egon daitezke, urte guztiko abonua aterata. Ludoteka baten antolaketa du zerbitzuak; liburutegia dauka, eskulanak egiteko lekua, jolaslekua, komunak...

Gipuzkoa mailan Bergarak ematen duen zerbitzua aitzindaria dela esan daiteke?

Bai; Bergarakoaz gain, Azpeitia ere azterketa egiten dabil, familia eta kirola nola uztartu ikusteko. Ludoteka ez, baina jolas-eremu librea dute Tolosa eta Beasainen. Horiek, baina, ez dute begiralerik.

**Kirola eta familia uztartzeko beste biderik badago?**

Jardunaldiak horretaz berba egin genuen, eta, ludoteka zerbitzuaz gain, beste bide batzuk ere aztertu genituen; adibidez, umearekin batera egitea kirola. 0-3 urte bitarteko haurrekin egiten dugu hori, igerileku.

**Lan horretan zeintzuk dira zaitasunak?**

Haurtzaindegi zerbitzua jartzekoan zaitasun handiena ekonomikoa izaten da.

**Ludoteka zerbitzuak zelako harrera izan du?**

Egia esan, erabiltzaile gutxi ditu ludotekak.

HIRIGINTZA > SAN MIGEL KALEA

## Udalak aho batez onartu du San Migel 7 eta 9 erostea

Udalaren asmoa da San Antonio-Urteaga eremua erre kuperatzeko bi eraikinak botatzea

A.E. > BERGARA

Astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuten San Antonio auzoko San Migel 7 eta 9 eraikinak eros-tea. Udalaren asmoa da bi eraikin horiek osorik erosi ondoren botatzea. Obra eta Hirigintza batzordeak martxoaren 31n egindako bileran hartutako irizpideak kontuan hartuta onartutako gaia da aipatutakoa.

**ORDENAZIOZ KANPO**

Bi eraikin horiek erosteko hainbat puntu hartu dituzte kontuan: alde batetik, indarrean dauden arau subsidiarioak eta

tramitatzan dabiltsan plan orokorraren arabera San Migel 7 eta 9 eraikinak ordenazioz kanpo geratuko lirateke; bestalde, Udalaren asmoa da San Antonio-Urteaga eremu degradatua erre kuperatzea. Horretarako, ordenazioz kanpo dauden eraikinak botako dituzte.

**BABES OFIZIALEKO ETXEAK**

Udalak Eusko Jaurlaritzaren ditzaketen hitzarmenaren arabera, babes ofizialeko etxeak eraikiko dira gune horretan. Asteleheneko bilkuran, S-4B sektorean etxebizitzak sustatzeko akordioa onartu zuten.

## oharrak

AGORROSIN

**> Agorrosingo kirol eremu zabalik egongo da Aste Santuan**

Eguen Santutik Pazko-astelehenera zabalik egongo da. Apirilaren 14tik 19ra, ordea, itxi egingo dute garbitzeko eta berdegunean egiten diharduten igerileku berrirako ur eta argi hornikuntza lanak egiteko.

KINTADA

**> 1965ean jaiotakoek kinto afaria egindo dute**

Apirilaren 25ean egingo dute, Tartufon. Izena emateko jo Ariznoa tabernara, idatzi [ketxaniz@euskalnet.net](mailto:ketxaniz@euskalnet.net) helbidea edo deitu 629 56 29 25 telefono zenbakira.

DEIALDIA

**> San Joxepeko estatutuak eskarragari daude dagoeneko**

Elkartearren estatutu eta barne araudia eta kultura gida eskuragarri daude egoitzaren bulegoan.

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

Mujika  
gozategia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Egunerojan janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 76 39 53

trinmer  
telecomunicaciones

tdt television  
digital terrestre

**Bergaran ere badago  
Lurreko Telebista Digitala!**

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

**TRINMER 20 urte antenetan**  
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatziale ofiziala 1305  
Egoin Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60  
[antenas@trinmer.com](mailto:antenas@trinmer.com) | [www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)

ETXEBIZITZA &gt; BABES OFIZIALEKOEN ZOZKETAK

# Etxebideko zerrenda bera erabiliko dute hurrengo zozketetarako

Uztailera arte egingo dituzte babes ofizialeko etxeen zozketetarako zerrenda bera erabiliko dute

Etxebideko zerrenda ikusgai dago Santa Ana antzokiko beiratean hilaren 20ra arte

**MIREIA BIKUÑA > OÑATI**  
Eraikitzenten dihardutene babes ofizialeko etxeen zozketetarako Etxebideko zerrenda bera erabiliko dute udal arduradunek. Hain zuzen ere, Santa Ana antzokiko beiratean ikusgai jarri duten zerrenda erabiliko dute. Uztail aurretik egingo dituzten zozketetan zerrenda bera erabiliko dute. Guztira, 519 izen daude Etxebideko zerrendan.

Alegazioak aurkezteko epea hilaren 20an bukatuko da. Zerrendan agertzen ez direnek edo zerrendan egon arren zozketa parte hartzeko interesa ez dutenek aurkez ditzakete udal bulegoetan. Uztaitetik aurrera egingo dituzten zozketetarako, agian zerrenda berriak eskatu beharko dituzte.



San Martineko etxeak zozketatuko dituzte lehenik.

MIREIA BIKUÑA

**ORIOMENA LANTZEKO HITZALDIA**  
Oñatiko egiten dihardutene eta zozketatuko dituzten babes ofizialeko lehen etxebizitzak San Mar-

tinekoak izango dira. Jendaurrean dagoen zerrendari alegazioak aurkezteko epea bukatu, eta dagozkion erreklamazioak azter-

tu ondoren zozketetarako eguna zehaztuko dute. Guztira, 45 etxe zozketatuko dituzte: bina etxea ezgaituendako, familia-ugarien-

dako eta Etxebiden lau urtez baino gehiagoz izena emandako dauzenetako gordeko dituzte. Gainerako 39 etxeak kupo orokorrean zozketatuko dituzte.

Gainera, lehen hiru kupo berezietan etxerik lortzen ez dutenek kupo orokorreko zozketan parte hartzeako aukera izango dute.

Prozesu berbera jarraituko dute Ugarkaldeko eta Kasablanka iparrean egiten dihardutene etxeekin.

Ugarkalde auzoko 5 eta 6 zenbakietan 40 etxe egingo dituzte. Kupo orokorrean 34 zozketatuko dituzte, eta beste seiak kupo berezietan. Astelehenean bukatu zen zozketa arautuko duen behin-behineko baldintzei alegazioak aurkezteko epea. Orain behin betiko baldintzak onartuko dituzte eta jendaurrean egon ondoren zozketetarako eguna zehartuko dute. Azkenik Kasablankako iparrean beste 12 etxe zozketatuko dituzte. Martxoko osoko bilkuraren onartu zituzten zozketetarako baldintzak.

## SUSTATZAILEEN SALMENTA

Kasablanka iparrean eta Kurtiderixa gunean saldu barik dauzen etxe tasatuen salmeta zuzena egiten hasi dira sustatzaileak Kale Barri 20ean. Erosleek 21.000 eta 54.615 euro arteko sarrerak izan beharko dituzte, eta gustuko duten etxea erosteko aukera izango dute.

ELIZKIZUNAK &gt; ASTE SANTUA

## Bihartik hasita hainbat elizkizun egingo dituzte herriko elizetan eta monasterioetan

**M.B. > OÑATI**  
Bihartik aurrera, Aste Santuko egunetan eta Pazko-egunean hainbat elizkizun egingo dituzte herriko elizetan eta monasterioetan. Bihar, Egubakoitz Santuan, Zapatu Santuan eta Pazko-domekan elizkizunak egingo dituzte Mikel Goiaingeruaren parrokiian, agustindarren elizan,

Bidaurreta mojen etxeen, beneditarren monasterioan eta Santa Ana monasterioan. Behoko taulan ikus daitezke elizkizunen egunak, orduak eta tokiak.

### AUZOETAN

Bestalde, auzoetako elizetan gurutz-eidea egingo dute Egubakoitz Santuan. Hain zuzen ere,

Uribarri, Olabarrieta eta Zubillaga auzoetako elizetan egingo dituzte. Gainera, Koizkar auzoko ermitan Eguen Santu eguna ospatuko dute bihar.

Bestalde, San Martin egoitza-kaperan, han bizi direnendako eta herritar guztiendako, elizkizunak egingo dituzte bihar eta egubakoitzean.

### > LANAK

## Turismoaren dako egokitu ondoren, parrokiako argiztapen berria inauguratuko dute gaur

Mikel Goiaingeruaren argiztapen turistikoa gaur, eguaztena, inauguratuko dute, 17:00etan. Erretaula eta aldare nagusiak, kripta eta Errosario eta Pietateko kaperak argiztatu dituzte. LED argisistema erabili dute eta bisita turistikoendako egokitu dute. Guztira, 120.000 euroko aurrekontua erabili dute lanok egiteko.

### > ERAKUSKETA

## Ateei buruzko erakusketa antolatu du Ilunpetan argazki taldeak herriko lau tabernatan

Ilunpetan argazki taldeak ateei buruzko erakusketa antolatu du herriko lau tabernatan; hain zuzen ere, Boga, Arrano, Guria eta Aker tabernetan. Oñatiko eta beste toki batzuetako ateei buruzko 20 argazki bildu dituzte, batzuk koloretan eta beste batzuk zuribeltzean. Erakusketa hilaren 30era arte egongo da ikusgai.

### > ZERBITZUAK

## Igerileku itxita egongo da hilaren 14ra arte, Osakidetzak agintzen duen garbitasuna egiteko

Osakidetzak urtean bi aldiz agintzen duen garbitasuna egiteko, kirolegiko igerileku itxita dago hilaren 14ra arte. Bi igerileku hustu eta garbitasun sakona egingo dute zabaldu aurretik. Bestalde, Aste Santuko oporrak direla eta, eskola kiroleko jarduna eten egin dute hilaren 20ra arte.

### Elizkizunen orduak, tokiak eta egunak

EGUNA	ORDU SANTUA	GURUTZE-BIDEA	EGUBAKOITZA	ZAPATUA	DOMEKA
Santa Ana	19:30	21:30	-	19:30	21:30
Beneditarak	18:00	-	-	17:00	21:30
Bideurreta	18:30	22:00	19:30	17:00	21:30
Agustindarrak	19:30	-	20:00	18:00	20:30
Parroquia	18:00	22:00	09:00	17:30	21:30
San Martin egoitza	16:00	-	-	16:00	-
Uribarri	-	-	09:00	-	-
Olabarrieta	-	-	11:00	-	-
Zubillaga	-	-	11:00	-	-

INGURUMENA > ATMOSFERAKO KUTSADURA

# Airearen kutsadura neurten, berriro

Ibarra futbol zelai parean dago unitate mugikorra martxotik, eta 45 lagin hartuko ditu

Aurreko neurketetatik ez zuten ondoriorik atera; orain, lagin gehiago hartuko dituzte

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta  
Aretxabaletako airearen kalitatea aztertzen dabilta asteotan. Martxoaren 10ean jarri zuten laginak hartzenten dituen unitate mugikorra Ibarra futbol zelai parean eta hila bukatu arte egongo da bertan. Orain dela urte eta erdi ere egin zuten azterketa leku berean, baina 30 lagin hartzitzen eta ondorioak ateratzeko gutxitxo izan zirela esan zuten azterketa egindako kimikariek. Horregatik, eta Markole auzoko bizilagunek eskatuta, berriro dago furgoneta laginak hartzten.

**KUTSATZAILEAK ETA METALAK**  
Airearen laginak hartzenten dituen unitate mugikorra Eusko Jaurlaritzarena da eta aurrekoan

jarritakoa baino berriagoa da. Jasotako laginak aztertzen dabiltsanak, osteria, Donostia Kirola Fakultateko Ingeniaritza Kimikoko kideak dira, eta fakultatetik bertatik egiten diote jarraipena unitate mugikorri. Arazoren bat igarritz gero bakkarrak etortzen dira furgonetara.

Kutsatzaile nagusitzat hartzenten diren gasak aztertuko dituzte -SO<sub>2</sub>, CO, NO, NO<sub>x</sub> eta O<sub>3</sub>-, baita meteorologi aldaketak ere: tenperatura, haizearen abiadura eta norabidea, euria eta hezetasuna. Gainera, airean dauden partikulei egingo diote jarraipena, zeintzuk diren eta zein kantitatean zehaztuko dute. Eta metal astunik daukaten ere behatuko dute -kadmioa, kobrea, burdi-

na, manganesoa, nikela, beruna eta zinka-. Horretarako kuartoz egindako filtroak erabiltzen dituzte, halako azterketetarako bereziki erabiltzen direnak. 24 orduko laginak dira hartutakoak, astean 3 edo 4, eta guztira 45 lagin izango dira.

Hori guztia aztertutakoan airean dauden kutsatzaile horien portaera ebaluatuko dute kimikariek eta bukatzeo aurretek herrian egindako azterketekin konparatuko dituzte orain lortu-

tako emaitzak. Indarrean dagoen araudia erakusten Anabel Diez Ingurumen teknikaria.

**EMAITZEK GAINDITU EZ ARAUDIA**  
Aurreko azterketa 2007ko maialta eta ekaina artean egin zuten. Bizilagunek eskatu zioten Udalari Markole inguruko airea aztertzeko oso kezkatuta zeude-lako etxe inguruan pilatzen zen hautsarekin. Azterketa egiteko 30 lagin bakarrik hartu zituzten eta denbora tarte laburra izan

zela emaitza erabakigarriak lortzeko adierazi zuten kimikariek. Edozein hirian dauden partikulak antzeman zituzten orduan; lanegunetan mailarik altuenak eman zituen eta aste bukaeretan bajuenak. Zazpi metal aztertu zituzten orduan eta gehien azaldu zirenak burdina eta zinka izan ziren, betiere legeak ezarritako gainditu barik. Kutsatzaile nagusienek ere ez zituzten gainditu ezarritakoak.



Markole auzoan jarri duten unitate mugikorra erakusten Anabel Diez Ingurumen teknikaria.

M.A.

UDALA > EZOHIKO OSOKO BILKURA

## Etxe tasatuen zozketa egiteko hitzarmena berritu du Udalak Bruesa enpresarekin

Hainbat etxebizitza daude hutsik eta hurrengo zozketa egiteko lau talde ezberdin egitea onartu zuen udalbatzak

berritzetan lanak ere Amaralek egin zituen.

Bestalde, zaborraren tasa %20 igotzea onartu zuten, Mankomunitateak proposatutako moduan.

### ZUZENKETA

#### EAK esana argitzen

Apirilaren 3ko GOIENKARIan adierazi genuen kirol etxearen proiektuari ezetza eman ziola EAk, baina emandako zergatziak oker zeuden. EAko Lore Martinezek galdezu zuen osoko bilkuraren proiektua zelan onartu behar den mantentua ordaindu ahal izango den jakin gabe. Arduragabekeria iruditu zitzaldon eta gaia atzeratzeko eskatu zuen: "Bozketa ezezkoa eman zuen, aretxabaletarrok ordain dezakeun kirol etxerik onena nahi dudalako".

### ETXE TASATUA, HUTSIK

Deba ibaiaren beste aldean Bruesa enpresa eraikitzalea egiten dabilen etxebizitza tasatu batzuk hutsik daude, eta zozketa egiteko hitzarmena onartu zuten. Tallez ezberdinak egingo dituzte zozketatzeko: lehenengoan sartuko dira aretxabaletarrak, diru sarren baremoan sartzen direnak eta etxerik ez dutenak; bigarrenean, Debagoienekoak; hirugarrenean, diru sarrera maximoak gainditzen dituzten Debagoienekoak; eta laugarrenean, interesa duten guztiak, baita etxe baten jabe direnak ere.

Hala ere, etxeren bat hutsik geratuz gero, Bruesak nahi bezala saltzeko aukera izango du, betiere prezioa errespetatuta. Ezker Batua-Berdeetako zinegotziak esan zuen babestutako etxeen filosofiaren aurka zihola "libreak diraleko etxe horiek", eta ezezkoa eman zion.

ERLIJIOA > ASTE SANTUA

## Gurutze-bidea, otoitzaldiak eta elizkizun asko egunotan

Parrokiatik Izurieta auzoko elizara egingo dute gurutze-bidea Ostiral Santuan

**M.A. > ARETXABAleta**

Bihar hasi eta domekara bitartean Aste Santua ospatuko dute herriko kristauak, eta, urtero legez, otoitzari eskainitako tarreak gertatu ditu Leintz Pastoral Barrutiak.

Bakarkako aitortzak eginda hasiko dute Ostegun Santua (11:00-12:00) eta arratsaldean Jaunaren azken afariko eukaristia izango dute, lehenengo agustindar mojen monasterioan (18:00) eta gero parrokan (19:00). Eta eguna bukatzeko otoitzaldia egingo dute monasterioan (21:30).

Ostiral Santuan gorespenak izango dituzte monasterioan (09:00) eta gero gurutze-bidea egingo dute parrokiatik Izurietako elizara (11:00). Jaunaren nekaldiko ospakizunak izango dira arratsaldean monasterioan (16:00) eta parrokan (17:30). Zapatuan, Pazko Gaubeila ospatuko dute bi elizetan (21:00), eta parrokan, gainera, umeak bataiatuko dituzte.

Eta domekan, lehen eukaristia (09:00) monasterioan izango da eta Pazko-domekako meza nagusia, parrokan (11:30).

**AUZOETAN EZ DA ELIZKIZUNIK**  
Auzoetan ez da izango elizkizunik Ostegun eta Ostiral Santu egunetan. Pazko-domekan, ostera, bai; apirileko domeka guztietan legez, Goroeta auzoko parrokan esango dute meza, 12:30ean.

HIRIGINTZA &gt; ESTATUKO FONDOKO LAGUNTZAK

# Estatuko Fondoarekin ordaindutako lanak, abian

Luis Ezeiza ikastetxeko su-detektagailua hobetzeko lanak amaituta daude dagoeneko

Kulunkako haurtzaindegia eta Udal Liburutegiko teilituak konpontzeko obrak hasita daude

MIRIAN BITERI &gt; ESKORIATZA

Espaniako Estatuko Fondoetako laguntzarekin egingo diren hamar proiektuetatik bi hasita daude dagoeneko. Pedro Lasagabasterrek jakinarazi duenez, Luis Ezeiza ikastetxeko su-detektagailua hobetzeko obrak amaituta daude. Zehazki, gas berogai luaren makina-gelan su eta eztan den aurkako sistemaren atzemendako arazoak konpondu eta berokuntza instalazioa egungo legediari egokitzen lanak egin ditu han Urko Mantenimiento enpresak. Bi egun behar izan ditu horretarako. Aurrekontua 2.755 euro izan da.

Horretaz gain, Kulunkako haurtzaindegia eta Udal Liburutegiko teilituak konpontzen ere hasi dira. Debagoiena SL arduratzan

ari da lan horietaz. Bi teilitu horietan dauden arazoak konpontzeko gutxieneko obrak egiten dihardute: estalki zelularra aldatzea, itoginak konpontzeko erretila egitea, erretenak eta zorrotenak aldatzea eta teilitura igotzeko trampa-ohol berria jartzea. Hilabeteko epea dute hori guztiori egiteko; hain zuzen ere, 14.594 euro bideratuko dira.

**BESTE BOST PROIEKTU ESLEITUTA**  
Lasagabasterrek gaineratu du beste bost proiektu esleituta daudela dagoeneko. Horietako bi proiektu hemendik gutxira abian jarriko dituztela jakinarazi du; obretan jarri behar den kartelaren zain dago Udala. Construcciones y Excavaciones Ferreira enpresak Lete eta Eraña elizate



Liburutegiko teilituak konpontzen ari dira orain.

M.B.

arteko bidean hormigoia botatzeko hilabeteko epea izango du eta aurrekontua 38.843 euro da. Zarimutz elizateko Mendibe eta Uribil-Buruntzano baserrien arteko bidean hormigoia botatzeko, berriz, bi hilabete izango ditu Excavaciones Arrasatek. Azken egitasmo horretarako 41.149 euro bideratuko dira.

Lanen hasiera oraindik zehazteke badago ere, beste hiru proiektu esleitu dira azken asteotan.

Ramel Albañeleria y Construcción empresas Santa Ana kaleko 19. zenbakiko lehenengo solairuan dagoen udal etxebizitza birgaituko du; lau hilabete iraungo dute lanek. Zirkuitu elektrikoa, saneamendu eta iturgintza sistema eta arotzeria nahiz lurreko eta hormetako zoladura berritzeko 36.184 euro beharko dira.

Enresa berak Txistularien arrateko parkineko autoendako sarrera inguruan plaketa hidrau-

likoa jarri eta hormigoizko hormetan murala egingo du. Goialdean, gainera, bukatu barik dagoen lorategia txukundu eta parkin gehiko sarreran segurtasun baranda jarriko du. Bi hilabete eta 20.556 euro izango ditu horretarako. Esleitu den azken proiektua Erañako ur hornidura sarean bi hilabetez konpontzearena da. Excavaciones Arrasatek egingo du eta egitasmo horren aurrekontua 52.112 euro da.

INGURUMENA &gt; ERAKUSKETA

## 'Zaborreria: birziklatuz sortu' erakusketa ikus daiteke Ibarraundin hilaren 30era arte

M.B. &gt; ESKORIATZA

Debagoieneko hainbat herrian ikusgai egon ostein, joan den astelehenean Amaia Zinkunegiren eta Ines Gerekaren *Zaborreria: birziklatuz sortu* erakusketa zabaldu zuten Ibarraundin museoan. Birziklatutako materialarekin egindako lanak apirilaren 30era arte bisitatu ahal izango dira.

Esan bezala, ingurunean dugun zaborra beste era batera birziklaturik lortutako sormen lanak dira erakusketa horretako protagonistak. Askotariko materialak erabili dituzte, hala nola kartoia, alabrea, plastikoa, oihala, papera eta latak. Baino baita natura berak eskaientzen dituenak ere: sustraiak, adarrak, harriak eta hezurak.

Erakusketak hainbat helburu ditu; tartean, birziklatzea modu



Besteak beste, material birziklatuarekin egindako aulkia ikus daitezke.

M.B.

praktikoan landuz, inguruneaz gehiago jabetzea; gaur egun kultura kontsumitzaileaz hausnartzea; edo botatzen ditugun objektuei erabilera berria ematea.

Erakusketa astelehenetik barkeratua, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara dago zabalik. Aste Santuko jaiegunetan, baina, itxita egongo da museoa.

## oharrak

KONTZERTUA

> **Gose taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean Inkernun**

Aitzorrotz kultura elkartea kontzertua antolatu du gaur gauerako. Arrasateko Gose taldeak Inkernu tabernako agerkiria igoko da 23:00etan. Sarreko librea da.

ZERGAK

> **Trakzio mekanikoko ibilgailuen tasaren ordainketa gaur arte**

Aurtengo ibilgailuen zerga ordaintzeko epea gaur, eguztuna, amaituko da.

MASAJEA

> **Gaur amaitzen da masaje bateratuaren izenematea**

Masaje bateratuaren gaineako ikastaroa gertatu dute apirilaren 23tik ekainaren 18ra. Gaur arte eman daiteke izena.

ERAKUSKETA

> **Margo Lehiaketaren margolanak ikusgai Ibarraundin**

Eskoriatzako III. Margo Lehiaketaren lanen erakuske-

ta ikusgai dago Ibarraundin hilaren 17ra arte. Aste Santuko jaiegunetan museoa itxita badago ere, apirilaren 14tik aurrera, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bisitatu ahalko dira.

TRUKEA

> **'Bat ekarri/Bi eruen' azokako liburuak hilaren 17ra arte aurkez daitezke liburutegian**

Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko, Udalak *bat ekarri/Bi eruen* izeneko truke azoka antolatu du. Liburuak apirilaren 17ra arte eraman ahal izango dira liburutegira.

LEHIAKETA

> **Apirilaren 19ra arte aurkez daitezke bideo lehiaketarako lanak**

Kataia eten barik egitarauaren barruan, bideo lehiaketa dago aurten lehen aldiz. Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 19a da. Informazio gehiago gura dutenek, [kultura@eskoriatza.net](mailto:kultura@eskoriatza.net) helbidera idatz dezakete.

Balentin Aperribai > Trikitilaria

## "Trikitia ikasiz gero ez du merezi lagatzerik; jotzea polita da, parrandan bada ere"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA  
Osintxuko Lesarrisoro baserrikoan, ezkonduta eta Antzuolan bizi da. Dulantzaino josten hasi zen Azkoitian eta gero panderoa eta soinua josten bere kontura ikasi zuen. Ikasi ez ezik baita erakutsi ere. Debagoineneko Trikiti Eguna aurten Antzuolan egindogela-eta, herriko trikitirako zaldetasunaz eta bere irakasle lanaz jardun dugu Aperribairekin.

### Noiz hasi zinen trikitian?

Gazterik hasi nintzen soinua joten nire kontura, eta gero, Alejandro Telleria Gorri-ekin, baita Lertxundirekin ere.

### Trikitia jasetik, umeei era-kustera pasatu zinen.

Etxeko sukaldean ibiltzen nintzen erakusten eta txandaka 40 bat ume inguru pasatu ziren. Nik trikitirako zaletasuna nuen, eta neska-mutikoek poza ematen zidaten. Hortaz, nekiena era-kutsi besterik ez nuen egiten. Nirekin panderoan hasi eta asko soinua ikastera pasatu ziren gero. *Epelarre* etorri zen soinu txikia joten erakustera.

### Zure ikasle izandakoak entzutea gustuko duzu?

Bai, beti eman izan dit poza, baina aspaldian oso gutxi dabilta ordukoak; ni ere gutxiago nabil, pixkanaka motelago.

### Orain joten duzu panderoa?

Gehienetan kasetea ipini eta horrela entrenatzen naiz, baina gero eta gutxiago joten dut. Noiz edo noiz egiten dut bazkariren bat lehen ikasle izandakoekin, eta orduan animatu eta joten dut.

### Trikitia kasetean bakarrik entzuten duzu?

Irratian askotan entzuten dut, baita kasetean ere, eta San Jose inguruan Azkoitian egiten duten trikiti jaialdira ere urtero joaten naiz. Arratera, Urkiolara... erromerietara ere asko joandakoa naiz, baina aspaldian gutxiago.



Balentin Aperribai, etxearen soinu txikia joten.

IRATI AGIRREAZALDEGI

### "Etxeko sukaldean ibiltzen nintzen panderoa joten erakusten"

### "Oraindik etxearen jarduten dut kasetea ipini eta bakarrik panderoa joten"

### Oraingo trikitia gustuko duzu?

Diferentea da. Erraz joten dute, baina piezak arraroak dira, askorekin dantzan ere ezin daitete egin. Lehengo trikitilaria zaharren piezak ditut gustukoago. Gazteek solfeoa ere badakite, eta guk dena buruz egiten genuen, entzundakoa jo eta kito. Lehengo soinuak plazarako biziagoak ziren, baina jotseko, oraingoak finagoak eta arinagoak.

### Antzuolan oraindik badago trikitirako zaletasunik?

Galduta egon zen garai baten, baina *Epelarre* eta biok erakusten hasi ginenean pixka bat indartu zen. Orain, noizean behin irtenen dira gurekin ikasitako batzuk, baina beste asko lagatakoak dira. Orain, txikiak polito datozen, baina indar pixka bat falta zaie; hala ere, jarraitu ezean, akabo.

### Debagoineneko Trikiti Eguna Antzuolan da. Gogoz zaude?

Nire ikasle izandakoekin irtengo naiz egun horretan, eta gogoz nago. Oraindik domeketan eta etxearen jardutzen dut bakarka panderoa joten. Behin ikasle gero ez du merezi lagatzerik; parrandaren baten bada ere, jotzea polita da. Lehen, errormeria batetik bestera ibiltzen ginen. Orain, edozein herritarra joan eta trikitilaria joten egon arren inork ez du dantzarik egiten, eta horrek pena ematen du.

HIRIGINTZA > OBRAK

## Kalegoiko lanak direla-eta desbideratzea egingo dute

I. A. > ANTZUOLA

Aste Santu ostean hasiko dira Kalegoiko lanak egiten, eta obrek irauten duten bitartean ibilgailuek debekatua izango dute kale horretan ibiltzea. Zirkulazioan traba gutxi eragiteko desbideraketa egingo dute. Sagastitik Antiguara joateko Elco, Navarro, Oerlikon... lantegien aurreko aldetik pasa beharko da. Autobus geltokietan ere egingo dituzte aldaketak: Zumarragarako autobusak Antiguaren geratuko dira eta Bergarara doazenak, Olaranen.

PAZIENTZIA ESKAERA UDALETIK

Udaletik aurreikusi dute Kalegoiko azpiegitura eta zoladura lanek uztailaren erdialderera arte iraungo dutela, eta barkamena eskatu nahi diete epe horretan kalteak jasango dituztenei, batez ere Kalegoiko bizilagunei. Barkamena ez ezik, ulerkortasuna eta pazientzia ere eskatu nahi diete herritarrei eta gidariei, "egingo diren lanek Antzuolako herritar guztiei ekarriko baitie onura", diote herrian barrena zabaldutako bandoan.

> AISIALDIA

### Uztailoko aisialdi ekintzetan umeekin jarduteko begiraleak behar ditu Udalak

Uztailaren 1etik 16ra umeendako ekintzak antolatzeko begiraleak behar ditu Udalak. Izena emateko, udaletxeen inprimakia bete edo mezua bidali behar da [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net) helbidera apirilaren 30a baino lehen. Euskaraz jakitea eta 18 urtetik gorako izatea dira baldintzak; begirale titulua izatea baloratu egingo dute.

> ERRETIRATUAUAK

### Urteko batzar orokorra egingo dute erretiratuek Landatxopen apirilaren 18an

Apirilaren 18an, zapatuan, urteko batzar orokorra egingo dute erretiratuek Landatxope elkartean. Zuzendaritzako kideen aldatza izango da landuko duten gaietako bat. Bilerarako lehen deialdia 17:00etan da eta 17:30ean bigarrena.

> MUSIKA

### Trikitilaria beteranoek apirilaren 15ean Olaranen dute hitzordua Trikiti Eguneko saioa gertatzeko

Debagoineneko Trikiti Eguneko antolatzaleen esanetan, gaur egungo ikasleez gain lehenagokoek ere izango dute lekua jaian. Kalejiran eta eguerdiko saioan jardungo dute beteranoek eta saioa gertatzeko apirilaren 15ean elkartuko dira, 19:00etan, Olaranen.

> OSPAKIZUNA

### Aberri Egunean Irun eta Hendaia artean egingo den ibilaldirako dei egin du udalbatzak

Antzuolako udalbatzak, azken udalbatzarrean gaia eztaba idatzi ostean, Nazio Eztabaidea Gunekoa egindako Aberri Egunerako deialdiarekin bat egin du. Hortaz, antzuolarrei dei egin diete apirilaren 12an Irun eta Hendaia artean egingo den ibilaldira joateko.

**Harizki** SUKALDEKO ALTZARIAK

Zurrategi plaza 4, behean. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**MUEBLES  
IGEA**

Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

**zabalo**  
IGELTSEROTZA  
Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

**ZAHAR BERRITZEAK:**

Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teilituak

ERLIJOA &gt; ELIZKIZUNAK


# Ez da izango prozesiorik Aste Santuan aurten

Parrokian elizkizun bereziak izango dira: gurutze-bidea eta Pazko beila, besteak beste

## IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ELGETA

Aste Santua, izenak eta tradizioak adierazten duen moduan, eliza giroan ospatzen du askok, adineko jendeak batik bat. Hori dela eta, jaiegunetan elizkizun bereziak izango dira Jasokundeko Andre Mariaren parrokian.

Eguen Santuan, 18:00etan, Jesusen azken afariaren elizkizuna egingo dute; Egubakoitz Santuan, 09:00etan, gurutze-bidea eliza barruan, eta 18:00etan Jesusen nekaldiaren ospakizuna; zapatuan, Pazko beila izango da 22:00etan; eta domekan, 12:00etan, ohiko meza.



Elizan ipiniko dituzte santuen irudiak ikusgai, eta elizkizun bereziak izango dira parrokian.

GOIENKARIA

> TELEBISTA  
**Ekainaren 14an abestuko du Kantari saioan Elgetako taldeak**

Jone Elkorok, Maialen Zubiaurrek, Naren Muñozek eta Goizaldi Arotzenak osatutako taldeak Sagan taldearen Zarena Zarela kantua abestuko du Goiena Telebistako Kantari saioan. Aste Santu ostean egingo dute entsegu, eta, koreografia ikasi osten, gogor saiatu beharko dute lehiaketako egunera bitartean letra ikasten eta dantza lantzen. Ondoren, ekainaren 14an, domeka, Bergarako Zabalotegi aretoan 19:00etan grabatuko dute elgetarrek euren abestia eta dantza lehiaketan. Bitartean, lehiakideek goiena.net / blogak / kantari blogeko helbidean dute informazioa eta euren kantua.

> ANTZERKIA  
**'Good sex good day' antzezlanerako sarrerak salgai daude**

Yolanda Garcia Serranok idatzi eta zuzendutako *Good sex, good day* edo *Lo que ellos ignoran de ellas* antzezlanera izango da apirilaren 24an, egubakoitz. Espaloian, 22:30ean. Zuzendari ezaguna da, Espainiako zinemagintzan egindako komedia lanengatik. Komediano giroko lana ekarriko du Espaloira ere. Hortaz, umore bizi eta fineko antzerkia ikusi nahi dueñaren dako sarrerak salgai daude 13 eta 11 euroren truke. Taula gainean hiru aktore ezagun ikusiko ahal izango dira: Susana Soleto, Vaya Semanita te lebista saiokoa; Itziar Urretabizkaia, Goenkaleko eta Idoia Merodio, *Esto no es serio, ¿o si?* saiokoa.

## LANDETXEAK BETETA

Batzuek elizan eta besteek opor giroan, kanpora bidaiai eginez ospatuko dute Aste Santua.

Opor egunak aprobetxatuz Elgetatik kanpora joango denik bada, baina baita oporretan Elgetara etorriko denik ere. Izan ere, Elgetan turismorako egokitutako bi landetxeak Aste Santuako beteta daudela esan digute jabeek. Herrian, San Roque kalean, dagoen ostattuan ere Aste Santuan iaz baino jende gehiago izango dutela esan digute, hala ere, oraindik tokia badagoela. Turistikak Madril diktatik eta Kataluniatik etorriko dira aurten eta guztiek dira bezero berriak, lehen aldiz Elgetako turismo etxeetara oporretan datozenak.



Erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordea Ozkarbin.

GOIENKARIA

## JENDARTEA &gt; ERRETIRATUAK

## Xalbadorpe izena ipini diote erretiratuen elkarteari

Manu Sarasua eta Begoña Ardantza dira zuzendaritza batzordeko kide berriak

## I. A. &gt; ELGETA

Erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordea zazpi lagunek osatzen dute eta azken batzar orokorrean erabaki dute bi kide aldatzea. Joaquin Gastesik eta Mertxe Elorriagak utzi dute batzordea eta Manu Sarasua eta Begoña Ardantza sartu dira.

Hortaz, zuzendaritza berrian Zezilio Totorikaguena da presidente; Pedro Mari Ubera presidenteorde; idazkari Guadalupe Ibarbia; diruzain Manu Sarasua eta bokalak Nati Arrieta, Irene Bolinaga eta Begoña Ardantza.

Zuzendaritzako kideak ez ezik elkartearien izena ere aldatu dute. Orain arteko izena

(Zaharren biltokia) gustuko ez zutela-eta lau izen berri ibili dituzte esku artean eta azkenik adostu dute Xalbadorpe Erretiratuen Elkartea izena ipintzea. Batzarrean, diru kontuak eta Udalak eta Ozkarbi elkartek egoitzaren gainean duten akordioa ere aipatu zituzten.

## MAHAI JOKOAK

Bestalde, erretiratuek mahai jokoak txapelketa izan zuten apirilaren 3an. Briskan Itziar Elorriaga eta Rufina Arantza izan ziren irabazole; musean, Jose Luis Irazabal eta Tomas Arizmendiari eta; eta tutean, Patxi Arantzabal eta Zezilio Totorikaguena.

## KIROLA &gt; TXIRRINDULARITZA

## Jone Muxikari omenaldia egingo diote apirilaren 18an

Bi bizikleta ibilaldi eta umeendako jolasak izango dira

## I. A. &gt; ELGETA

Iaz Asentzion hasitako bideari jarraituz, bizikleta jaia antolatu du Udalak apirilaren 18rako. Goizean barrena hainbat etxalde izango dira: 09:30ean abiaturita bi bizikleta ibilaldi izango dira aukeran. Batzuek errepeideko bizikletarekin egingo dute buelta eta mendian besteeak.

Goizean goiz abiaturiko dira batera eta bestera txirrindulariak, baina txikiek beranduago dute hitzordua. 11:00etik 12:00etara bitartean Salvador kalean elkartuko dira umeak eta jolasak egingo dituzte, betiere bizikletan.

## MOKADUTXOA ETA OPARIA

Bizikletan ibilaldia egitera intendakoek eta umeek Salba-

dor kalean bat egingo dute 12:00ak inguruan eta mokadutxo baten bueltan Jone Muxika herriko txirrindulariari omenaldi xumea egingo diote. Antolatzaileek esan digutenez, egin duen denboraldiarenengatik merezitako oparia jasoko du.



Jone Muxika.

GOIENKARIA

ARAMAIO > MULTIABENTURA ASTEBURUA

## Sellaren jaitsiera kanoaz egiteko aukera izango da maiatzaren 16an eta 17an

Zuiako Koadrilak 12 eta 20 urte bitarteko gazteendako multiabentura asteburua antolatu du; Asturiasera egingo dute irteera

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO  
Abentura gustuko duten gazteetako hitzordua daukate maiatzaren 16an eta 17an; izan ere, Zuiako Koadrilak multiabentura asteburua antolatu du bi egun horietarako.

Asturiasera egingo dute irteera, Avin herrira. Bertan, besteak beste, Sellaren jaitsiera egingo dute kanoaz, eta baita Caresko ibilbidea ere. 12 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzendutako irteera da.

Multiabentura asteburuan parte hartu nahi dutenek 70 euro ordaindu beharko dituzte; prezioan honakoa sartzen da: aterpea, autobusa, segurua, larunbateko afaria, ekintzak, materiala eta igandeko gosaria eta bazkaria.



Multiabentura asteburuan, besteak beste, Sellaren jaitsiera egingo dute. GOIENKARIA

Izena emateko epea maiatzaren 4an amaitzen da. Egun hori baino lehen aurkeztu beharko dira inskripzioa orria eta bankuko ziurtagiria. Honako kontu korrontean sartu behar da dirua: 20970224980102619817. Aramaiko

udaletxean edo Zuiako Koadrilako bulegoetan eman daiteke izeana. Plazak mugatuak dira eta zozketa bidez banatuko dira. Informazio gehiago nahi izanez gero 945 43 01 67 telefono zenbakira deitu behar da.



GOIENKARIA

## Aramaioarrak, Korrikarekin bat

Korrika aurren Aramaiotik igaro ez den arren, aramaioarrek euskaren aldeko kilometroa egin zuten domeka goizean. 08:50ean iritsi zen Korrika Duranara. Bertan, Aramaioko Udalak kilometro bat zeukan erosita eta kilometro hori egitera joan zen aramaioar talde bat; 15 lagun inguru elkartu ziren.

> ARAMAIO  
**Udalekueta izena emateko aukera uztailaren 8tik 21era**

3 eta 12 urte bitarteko gazteek udalekueta parte hartzeko aukera izango dute aurten berriro ere. 10:00etatik 13:00etara izango dira eta baserrietan bizi direnentzat autobusa ipiniko dute. Udaletxean eman behar da izena maiatzaren 8a baino lehen. Monitore moduan lan egin nahi dutenek ere epe bera daukate izena emateko; 17 urte baino gehiago izan behar dituzte. 240 euro ordainduko zaie.

> ARAMAIO  
**Arbeleko bazkideek bazar orokorra eta bazkaria, hilaren 18an**

Aramaiko Baserritarren Elkartearren eguna izango da apirilaren 18an. 12:30ean bazar orokorra egingo dute eta bertan, Arbel kooperatiba izatera pasatzea onartuko da. Hori horrela, ahalik eta bazkide gehien joan dadin nahi dute. Ondoren bazkaria egingo dute eskolan. Bestetik, Arbel Eguna dela-eta, 12:00etan hasita, plazan, herri kirolak egingo dituzte herriko gazteetxoendako.

LEINTZ GATZAGA > LANAK

## Martitzenean hasiko dira hainbat baserritako bide sarrerak zabaltzen

Gatzagainen hainbat garbiketa lan egiten dabilta orain: ganadua ez pasatzeko pasabidea eta Gaztainuzketara doan uraren hodia



Ganadua ez pasatzeko pasabidea garbitzen dabilta Gatzagainen.

M.A.

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Hainbat lan egiten dabil egunotan Gatzagan larreen ardura duen Aldundiko saila. Joan den egubakoitzean hasita Gatzagain ingurua garbitzen dabilta; ganadua ez pasatzeko pasabidea txukundu dute eta hormigoia bota 10-15 metroan –behiek ez dezaten alde egin bertatik–. Gaztainuzketara doan ur hodian ere konponketak egingo dituzte, sarritan trabatu egiten delako.

BURDINKURTZEKO SARRERA

Bestalde, datorren martitzenean, hilak 14, hainbat baserritara doazne bide sarrerak zabaltzen hasiko da Aldundiko Errepide Saila. Aurrez iragarrita zeukaten Arrateko bidearekin hasiko zituztelako lanok, luzeenak izango direlako, baina astelehenean egindako bisitan konturatu ziren lurrean egindako seinaleak ezabatuta daudela. Hala, Burdinkurtzeoko bide sarrera zabaltzen hasiko

dira martitzenean eta bukatutakoan egingo dituzte Arrateko lanak. Bukatzeko Gatzagain ingurua konponduko dute. Lanok bi hilabetetan egingo dituztela esan

dute Errepide Saileko arduradunek. Izan ere, behin autobidea zabalduta, zirkulazio txikiagoa egingo dela uste dute eta lanak samurrago egingo dituztela.

Hiru horiekin batera Olaun aldeko bide sarrera zabalduko dute –Arlabango errepidean–, baina lan horiek Udalaren esku utzi diu Errepide Sailak.



ORLY-Tiretu! taldeko debagoiendarrak Markel Irizarrekin eta Euskalteleko mekanikoekin Erpe Meren (Belgika), domekako lasterketa amaitu eta gero, hotelean. XABIER URTZELAI

**TXIRRINDULARITZA > IPARRALDEKO KLASIKOAK**

## "Pena da, baina ziklistok ez dugu proba hauetaz gura moduan gozatzen"

Markel Irizarrek Flandriako Tourra korritu zuen domekan. Gaur, eguaztena, Gent-Wevelgem proban izango da eta domekan lehiatuko da Paris Roubaix lasterketan

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Egunotan txirrindularitzan Euskaldeko Itzulia da albiste. Gaur, eguaztena, hirugarren etapa korrituko dute, eta txirrindulariak Debagoienetik igaroko dira; 15:00ak inguruan Arlabanetik sartuko dira ibarrera, eta Bergara jaitsita (15:45) Elgetarako bidea hartuko dute etapa Arraten amaitzeko.

Baina, ibarreko txirrindulari profesionalak beste lasterketa batzuetan dabilta egunotan. Iban Velasco Lizarrako Itzulian lehia-

tzen asteburuan -47.a-, eta Markel Irizar Belgikan dago, iparraldeko klasikoetan esku hartzen. Hain zuzen ere, Flandriako Tourra korritzera -proba zikloturista-, eta profesionalen lasterketa ikustera Belgikara bidaia egin zuen Debagoieneko taldearekin izan zen Oñatiako ziklista.

### GALTZADA-HARRIAN KORRITZEA

Ronde van Vlaanderen edota Flandriako Tourra da iparraldeko klasikoetan artean ikusgarrienetako bat. Profesionalek korritu baino egun bat lehenago zikloturistendako antolatzen dute lasterketa -zapatuan 19.000 lagunek hartu zuten parte proban-, eta ibarretik joandakoek bertatik bertara ikusi ahal izan zuten zer den galtzada-harri gainean bizikletan ibiltzea. Markel Irizar ohi-tuago dago horretara: "Flandriako probarekin alderatuta, baina, datorren domekan egingo dugun Paris-Roubaix gogorragoa da. Galtzada-harriak askoz ere koska handiagoak ditu eta kilometro

asko dira bizikleta gainean". Oñatiokoaren asmoa da gaurko Gent-Wevelgen proban aurrean ibiltzea, domekako lasterketarekin

ez zen-eta erabat gustura geratu; 65.a izan zen: "Orain dela bi urte aurrean ibili nintzen, eta hori hobetu gura nuen, baina erorik batengatik tropela hautsi eta atzeko taldetxoan geratu ginen".

Irizar bere saltsan dabil, lasterketa klasikoetan, baina gehiago gozatu gurako lukeela aitordu du: "Hamar urte barru ikusle moduan etorriko naiz, eta orduan gehiago gozatuko dut, seguru. Izan ere, lasterketa barruan ziklistok urduri ibiltzen gara, eta ez gara ohartzen proban egoten den giroaz".



Irizar Geraardsbergen-eko murru ezagunean, Kapeelmur-en.

GORKA ITURBE

## FUTBOLA

### Realeko eta Athleticeko gazteak Agorrosinen

Zapatuan jokatuko dute, 17:00etan, gazteen torneoko kanporaketa

X.U. > BERGARA

Aste Santuan beteko ditu Realeko gazte mailako nazioarte-ko txapelketak 25 urte, eta aurtengo ediziorako hainbat berrikuntza egin dituzte. Eta, garrantzitsuena da txapelketa lehengo modura antolatuko dutela: ate irekien jardunaldi barik, inaugurazio egunean hiru partidu jokatuko dituzte.

Egubakoitzean hasiko dute torneo Zubietan, eta zapatuan jokatuko dute Debagoineko norgehiagoka bakkarrak, Realak eta Athletik, 17:00-eten hasita, Agorrosinen.

### ZORTZI TALDE

Aurtengo txapelketarako Reala, Athletic, Atletico Madril, Sevilla, Bartzelona, Osasuna, Valentzia eta Gipuzkoako selekzioa gonbidatu ditu. Onenek astehenean jokatuko dute finala, 12:00etan Anoetan.

### > SASKIBALOA Ointxe!-k saskibaloi entrenatzaile ikastaroa antolatu du

Gipuzkoako saskibaloi federazioarekin batera Ointxe!-k lehenengo mailako entrenatzaile ikastaroa antolatu du. Ikastaro hori apirilean hasiko dute -gaur da izena emateko azken eguna- eta uztailera arte emango dituzte eskolak. Gorka Nuñez, Javi Zurbano, Jordi Llopis, Ruben Sanchez eta Gorka Zurututza dira eskolak emango dituzten irakasleak. Ikastaroak 260 euro balio ditu eta izena emateko deitu 943 47 33 24 telefono zenbakira.

**GOKI ERREFORMAK, S.L.**  
OBRAK ETA PROIEKTUAK

Teilatuak • Fatxadak • Barruko obrak

Irizar ibilbidea 1, behe 20570 BERGARA

Tel.: 943 76 53 42 • Faxa: 943 76 52 16

[bergara@gokierreformak.es](mailto:bergara@gokierreformak.es) / [www.gokierreformak.net](http://www.gokierreformak.net)





## > MUSIKA

Kataia talde afrikarrak saioa egingo du Oñatiko Topalekuuan >**22**



## > ANTZERKIA

Erbestetik itzuli ezin den gizon baten ametsak, Bergarako Aroztegin >**23**

## > BEA ASURMENDI

Aramaiko gaztearen familian musikaririk ez dagoen arren, bera oso zalea da. Abestu eta gitarra jotzen du eta gospel talde baten aritu nahiko luke >**26**



# Egile eskubideen izanean, bibliotekak diru iturri bihurtu

Liburutegietako kanona berbagai izango du Blanca Calvo adituak hilaren 29an Kulturaten, 19:00etan

Ibarreko biblioteketek ez dakite noiz eta nola aplikatu behar den

### JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Pentsa baziak zaren zure herriko bibliotekara joan eta lagun batek gomendatu dizun liburu bat maileguan hartzeagatik ordaindu egin behar duzula. Lasai, ez zara nahastu: liburutegian zaude, eta ez liburu denden. Baino biblioteketan ezarri gura duten kanonarekin egin duzu topo, eta, hortaz, liburu, disko edota film bat maileguan hartzeagatik ordaintzera behartuta zaude, nahiz eta, hasiera baten, ez den diru askorik izango; 20 centimo inguru dela esaten da, baina ez dago zehaztuta.

Halako egoerak biziko dira biblioteketako kanona aplikatzentz bida. Auzia 1992ko azaroan hasi zen, Europako Batasunak kanona aurreikusten zuen zuztaraua onartu zuen. Zuzentarrua onartzeak eztabaidea sakona zabaldu zuen: jabetza intelektuala eta egileen eskubideak noraino diren jabetza eta noraino diren eskubide. Espainiako Estatuan, 2007ko Biblioteken Legeak oihartzun mediatiko handia eragin zuen, kanona aplikagarri egiten zuelako. Espainiako Estatuan kontaezinak dira kanonaren aurka agertu diren elkarre, bibliotekari, idazle eta liburutegietako erabiltzaileak.

### EUROPAN IA ONARTUTA DAGO

Egun, Europako zenbait herrialdetan kanona ordaindu egiten dute –euro bat-edo–, herrialde garatuenenetan batez ere (Britania Handia, Frantzia, Norvegia, Suedia...). Herrialde horietan liburutegi publikoek askoz era-biltzaile gehiago dituzte: hemen herriarren %20; herrialde gara-nuetan, berriz, %50.



Biblioteketako kanonak mailegu bakotzagatik ordaintzera behartuko luke erabiltzailea. Irudian, herritar bat Arrasateko bibliotekatik liburu bat hartzen.

J.B.

Horretaz aparte, badago kanonarekin irakurketa sustatzea lortu duen herrialderik. Hori bai, oso bestelako testuinguru batean eroan da aurrera. Danimarka da kasua. II. Mundu Gerraren ostean, kanonak lur jota zeuden argitaletxei laguntzeko eta bertako hizkuntza sustatzeko balio izan zuten. Nola egin zuten? Bada, danieraz idazten zuten idazleen maileguengatik bakarrik kobra-tzen. Beste guztiak, doan.

### KANONAK, 'OINARRI FALTSUAK'

Biblioteketako kanonak egileen eskubideak bermatzea eta euren lana konpentsatzea ei du helburu. Hala ere, Blanca Calvo Guadalajarako biblioteka publikoko zuzendari eta *Plataforma contra el canon* elkarteko kideak bestelako iritzia dauka.

Gaien aditua da Calvo, eta apirilaren 29an Kulturaten izango da *Pagar por leer en la biblioteca pública* izenburua duen hitzaldia

egiten –19:00etan–. Hitzaldian kanona zer den eta egun egoera nola dagoen izango du hizpide, besteak beste. Kanonari buruz galdetuta, Calvok hauxe adierazi du: "Eguna inposatu nahi diguten kanona faltsukerian oinarrituta dago". Gaineratu duenez, "Europan uste da liburuak maileguan utziz idazleei kalte egiten zaiela, baina errealtitatea alderantzizkoa da". Hau da, biblioteketik irakurzaletasuna sustatzeaz gain, idazleei mesede egiten dietela uste du Calvok: "Bibliotekan eza-gutu eta gustatu zaizkidan idazleen liburuak errazago erosiko ditut liburu denden".

### 'IRAINGARRIA' LIBURUZAINENTZAT

Horretaz guztiaz gain, Biblioteken Legeak (2007) aplikagarri egiten duen kanona liburuzaientzat "iraingarria" dela uste du Calvok: "Museo batera zoazenean koadro bakoitza ikusteagatik ordaindu behar izatea bezain iraingarria da, eta, gainera, sekulako paradoxa planteatzen du liburuzaientzat: zenbat eta

### ESANAK

**"Kanonak paradoxa handia planteatzen du liburuzaientzat: zenbat eta hobeto lan egin, orduan eta gehiago ordaindu dugu"**

**Blanca Calvo** > 'Plataforma contra el canon' elkarteko kidea

hobeto lan egin, orduan eta gehiago ordaindu beharko dugu". Ez zaio arrazoirik falta: zenbat eta mailegu gehiago, orduan eta handiagoa izango baita bibliotekak CEDRO elkartea pribatuari –SGA-Eren filiala– ordaindu beharko dion diru kopurua.

Calvok argi utzi gura izan du kanonak helburu ekonomikoei bakarrik erantzuten diela: "Ekonomia Ministeriotik datorren zuzentarrua da, Kultura Ministeriotik etorri beharrean", jakinarazi du.

### ETA GUREAN... ZER?

## Debagoieneko biblioteketan ez da oraindik kanona aplikatu, baina 'mamua' hor dago

Debagoieneko udal biblioteketan ez da kanona aplikatzen. Oraingo, behintzat. Eskoriatza, Aramaio, Elgeta, Antzuola eta Leintz Gatzagan ezin da mailegu bakoitzeko ordainketarik ezarri, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten herriak direlako. Hala zehazten du 2007ko Liburutegien Legeak. Hortaz, Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako eta Oñatiko udal liburutegiak dira kanonaren *mehatxupean* daudenak.

Hala, Asun Agiriano Arrasateko haur eta gazte bibliotekako arduradunak, "mamua" hor dagoela jakinarazi du, eta informaziorik eza nagusi dela dio: "Ez digute inongo kontsultarik egin. Gainera, ez daukagu kanona noiz, nola... aplikatuko den –aplikatzen bada– gaineko informaziorik".

MUSIKA &gt; KATAIA TALDEAREN KONTZERTUA

# Kataia talde afrikarra Topalekuuan

'Balag' musika senegaldarrean oinarritutako abestiak egiten dituzte ukitu pertsonalarekin

Apirilaren 17an, musikaz gain, taldekideek euren bizipenak azalduko dituzte Oñatin

NEREA MENOR &gt; OÑATI

Musika saio didaktikozen zikloarekin jarraituz, Katai taldeak musika saio didaktikoa eskaini-ko du apirilaren 17an, 18:30ean, Oñatiko Topalekuuan.

Aurrekoetan bezala, urruneko beste kultura batera jo nahi izan dute antolatzaleek. Oraingoan, hala ere, Bergara eta Mar-kinan bizi dira taldeko partaideak, izatez Senegal eta Gambiakoak izan arren.

Taldea lau kidek osatzen dute: Mamadou Sar, Buba Sar eta Ismail Sar Senegalgo Sine Saloum irletakoak dira eta Saliu Cama Gambiako da. Kataia, taldearen izenak, *te berdea* esan nahi

du Sine Saloumgo hizkuntzan. Gitarra bat, perkusio afrikarra eta ahotsak dira euren osagaiak eta sortzen dituzten abestien oinarrian *balag* musika senegaldarra antzematen bada ere, eurek bes-te ukitu bat ematen diotela azaldu dute Topalekuo kideek.

**AFRIKAKO BIZIPENAK**

Musikaz gain, lau kideen espe-rientziak ere entzungo dira saio didaktiko horretan. "Euren bizi-penak ere entzuteko modukoak baitira", diote Topalekuuan. Horre-taz gain, euren jatorrizko herrial-deen kultura eta bizimoduaren gaineko azalpenak emango dituz-te. Izan ere, Mamadou Sar izan



Euren bizipenak azalduko dituzte Kataia taldekoek.

GOIENKARIA

ezik, gainontzeakoak pateratan etorri ziren; haietako bat, Buba Sar, guitarra eta guzti.

Aurretik beste lau kontzertu antolatu dituzte ziklo horren

barruan; tartean, Uruguai eta Malawiko taldeak. Hemendik aurrera, eta bi hilabetean behin, saio didaktikoak antolatzeko asmoa dute Topalekuuan.

MUSIKA &gt; PUNKA ETA HEAVY METALA

# Pazko astean ere zuzeneko musikak ez du etenik izango Arrasateko 3.60 aretoan

Apirilaren 17an punka izango da nagusi; Distorsion eta Material Rechazadok joko dute

Hilaren 18an, berriz, heavyaren zaleendako hitzordua: The Ancient, Gothmog eta Denial

JOKIN BEREZIARTUA &gt; ARRASATE

Aste Santuko oporraldietan ere Arrasateko 3.60 aretoan zuzeneko musika izango da gozagai. Aste bukaera honetan ez da kon-tzerturik izango –azken hilabete-etaen gutxienez kontzertu bat anto-latu dute aste bukaerero–, baina Pazko asteko egubakoitz eta zap-tuan zuzeneko musika izango da.

**HILAREN 17AN, PUNKA...**

Datorren egubakoitzean punka izango da protagonista. 1980ko hamarkadan jaio zen Barakaldo-ko Distorsion taldea igoko da taula gainera. Taldeko buru Josu



Goian, Alacanteko Gothmog taldea; behean, Distorsion taldeko Josu.

Distorsion abeslari eta gitarra jolea –goiko irudian– etorriko da, eta, hortaz, ikuskizuna ber-matuta dago. Ikuskizuna, eta barre algarak, agertokian egiten dituen erokeria zenbatezinak dira-eta. Haien aurretek Arrasa-teko Material Rechazadok joko du; boskote arrasatearrak punk-rocka lantzen du eta haiékin ere ez da ikuskizun faltako, ezta izerdia eta sentimendua ere. Kon-zertua 22:30ean hasiko da.

**... ETA 18AN HEAVY METALA**

Egubakoitzeko punk gauaren ostean, heavy, black eta death metal doinuak etorriko dira zap-tuan. The Ancient, Gothmog eta Denial taldeek joko dute, 22:00etan hasita. Lehen bi taldeak heavyaren munduan nahiko ezagunak dira, The Ancient tal-dea batez ere. Atenas, Milan eta Norvegiako kideek osatzen dute The Ancient. Gothmog taldea –Torn Asunder taldekit sortutako taldea da–, Alacantetik dator. Hemengo ordezkaritza Aretxabaleta eta Arrasateko kidez osatutako Denial taldeak beteko du. Doinu gogorren aste bukaera izango da, hortaz.

KULTURA

## Oteitzaren gaineko erakusketa Bergaran

GOIENKARIA &gt; BERGARA

Jorge Oteitzaren jaiotzaren mendeurrenean, *Bizirako proiektua* izeneko erakus-ka heldu da Bergarako Aroz-tegi aretora, eta maiatzaren 3ra arte egongo da ikusgai.

**OBRA ULERTZEN**

Haren lanaren bilakaera aztertzen da erakusketa, eta haren pentsaera eta sorkun-tza adierazpena ezagutarazteko gakoak ematen dira.



Aroztegi erakusketa. GOIENKARIA

ARETXABAleta

## Urtubiren paisaiak ikusgai Aste Santuan

Martxo amaieran zabaldu zuen paisaiaz osatutako argazki erakusketa

J.B. &gt; ARETXABAleta

Aste Santuan herrian geratu-ko direnek Manolo Urtubi argazkilariaren erakusketa gozatzeko aukera izango dute. Urtubik martxo amaieran zabaldu zuen erakusketa, Arkupe erakusketa aretoan.

**INGURUKO PAISAIAK NAGUSI**

Erakusketa 20 argazkieta-til gehienak Aretxabaleta eta inguruko paisaiak osatzen dute. Urtubik uste duenez, gurean argazki onak ateratze-ko "momentu egokiak bilatu behar" dira. Jai eta ospakizun-ten ere ateratzen ditu argaz-kiak, baina horiek argazki artxiboa gordetzeko ateratzen ditu. Izan ere, Urtubi kide den Aretxabaletako argazki taldeak 6.000 argazki dituen artxiboa dauka.

ANTZERKIA > BERGARAKO ZABALOTEGIN

# Erbestetik itzuli ezin den gizon baten ametsak, 'Aulki hutsa' antzezlanean

Le Petit Theatre de Pain taldeak egingo du emanaldia Bergarako Zabalotegi aretoan, hilaren 17an

Sarrerak aretoko sarreran eros daitezke hiru euroren truke

MIREIA BIKUÑA > BERGARA  
Antzerki herrikoiaren alde egin duen Le Petit Theatre de Pain taldeak emanaldia egingo du hilaren 17an Bergarako Zabalotegi aretoan, 22:30ean. *Aulki hutsa* antzeziana ikusteko sarrerak aretoan bertan eros daitezke hiru eurotan.

Joseba Sarrionandiaren testuan oinarritutako lana egin dute Le Petit Theatre de Pain taldekoek, eta antzeziana Ander Lipusek zuzendu du. Erbestetik itzuli ezin den gizon baten ametsak kontatzen dituzte. Manex Fuchs izango da taula gaineeko protagonista bakarra.



Manex Fuchs-ek bakarrizketa egingo du taula gainean.

LE PETIT THEATRE DE PAIN

#### PUBLIKO GUZTIARENDAKO

Le Petit Theatre de Pain antzerki taldea kultura eta hizkuntza askotariko 12 lagunek osatzen dute. "Antzerki herrikoiaren aldeko apustua egin genuen

aspaldi. Gure lana publiko guztia eskaini nahi diogu, haur, gazte eta helduendako. Eurekin komplizitatezko hartu-emana sortu nahi dugu", esan digu taldeko kide Ximun Fuchs-ek.

Duela 13 urte taldea sortu zutenetik zazpi ikuskizun egin dituzte; tartean, euskarazko hiru moldaketa egin dituzte; hain justu ere, *Juglarea, puta eta eroa*; *Tartean* eta *Aulki hutsa*.

MUSIKA

## Gaur, Gose taldearen kontzertua Inkernun

Emanaldia  
23:00etan hasiko dute eta sarrera doakoa da

M.B. > OÑATI  
Gose talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du gaur Eskoriatzako Inkernu tabernan, 23:00etan. Hirukote arrasatearrak orain arte grabatu-tako bi diskoetako kantuak eskainiko ditu. Lehen diskoa 2005ean argitaratu zuten Oihukarekin eta bigarrena 2007an grabatu zuten Arrasteko Shot! estudioan.

IBILBIDE SENDOA  
Ordutik hona ibilbide sendoa egin dute musika munduan arrasatearrek. Besteak beste, *Eutsi!* pelikulako kantua egin zuten. Gainera, *16 eskailea* kantuak Espainiako Arte eta Musika Zientzien Akademiak Euskarazko Kantu Onenaren saria eskuratzeko izendapena jaso zuen; baina ez zuten saria irabazi.

Zain gaituzu,  
ordainlekuak zabalik

↓ ↓

Eskoriatza – Gasteiz zatia, irekita eta dohainik

Zure marka gogokoena eta zerbitzu guztiak,  
inoiz baino hurbilago:  
**Gasteizko Boulevardean**



**1/ ETXEBIZITZAK****102. EROSI**

**Arrasate.** Etxebizitza erosiko genuke erdigunean edo inguruaren. 69 eta 90 metro koadro arteko. Garajea baldin badauka, hobeto. Prezioa etxearen egoeraren arabera adostuko genuke. Idatzi mezu bat konpuprest@gmail.com helbidera edo deitu 693 34 58 69 telefono zenbakira.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Gela bateko etxebizitza ematen da errentan. Bikote batentzat egokia. Hilean 480 euro. 619 34 88 52.

**Bergara.** Bi logeladun etxebizitzan errentan ematen da San Lorentzen, 675 euro. Deitu 688 69 00 02 telefonora.

**Ofiati.** Hiru logelako etxeta errentan. Bi bainugela, sukaldie janetza, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko bero-gailua. Laugarren solairua, igogailuarekin. 677 21 21 62 edo 677 61 84 88.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Bergara.** Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. Deitu 649 63 23 24 edo 696 38 10 07 telefono zenbakietara.

**105. ETXEAK OSATU**

**Arrasate.** Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. 675 57 03.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan San Andresen, igogailua eta garajearekin. Pertsona arduratsua behar da, bertranbizi den pertsonarekin ardu-rua beharko du eta. Presazkoia da. 672 20 36 82.

**Arrasate.** Logela individualua. 190 euro. Telefona eta wi-fi barne. Mutil edo neska. Erdigunetik hiru minutu. Deitu 653 74 28 83 zenbakira.

**Arrasate.** Malvinetan. Oso egoera onean daigoen etxebizitza batean pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 616 05 97 92.

**Arrasate.** Pertsona batendako logela ematenda errentan. 636 91 81.

**Bergara.** Logela bat errentan ematen dut, sukaldea erabilzeko aukerarekin. Bolun. 670 85 86 68.

**Bergara.** Logela bikoita ematen da errentan, bi lagunendako. Erdialdean. Deitu 649 63 23 24 edo 696 38 10 07 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Neska bat behar da Bergaran etxea osatzeko. Deitu 665 73 98 98 zenbakira.

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Deitu 628 45 10 37 telefonora.

**Ofiati.** Gela bat ematen da errentan maitzetikaurrera. Deitu 655 71 33 66 telefonora.

**Ofiati.** Gela ematen da errentan apiriletikaurrera. Deitu 617 14 39 41 zenbakira.

**2/ GARAJEAK****201. SALDU**

**Bergara.** Garaje irekia salgai Masterrekan. 651 70 90 12.

**3/ LOKALAK****303. ERRENTAN EMAN**

**Antzuola.** 80 metro koadroko lokala erdigunean. Egoera onean. Elkudurako ezin hobeak. Komunarekin. 6.000 euro eskuadatzagatik 500 euro hilean. Deitu 600 03 86 80 edo 943 14 84 67 telefono zenbakietara.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Etxeriketxe ile apaintziale lanak egindo nituzke. 650 59 93 91.

**Arrasate.** Aramaio edo Aretxabaletan neska euskalduna gertu asteburuetan tabernan lan egiteko. 686 25 06 57.

**Arrasate.** Egun erdiz, oso edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21.

**Arrasate.** Emakumea euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko edo etxearen bertan bizi izateko, nagusiekin arduratzeko. 680 30 24 64.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 649 30 13 60.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Esperientziadun neska tabernan lan egiteko gertu. 653 77 02 14 edo 646 86 43 89.

**4/ LANA**

**402. ESKAERAK**

**Aretxabaleta.** 40 urtetik gorako neska euskalduna gertu nagusiekaintzako, etxearen edo arratsaldez. Esperientzia daukat. Feli. 943 79 53 92.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Esperientziadun neska tabernan lan egiteko gertu. 653 77 02 14 edo 646 86 43 89.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uterik ere.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

**PARTIKULARAREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENeko GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENeko GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENeko GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.  
GOIENKARIA-N ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Arrasate.** Batxilero, DBH eta LMHKo ikasleei eskola partikularrak emateko gertu; bereziki, matematika, fisika, kimika, teknologia eta ingelesez. Ingeniaritzakasita. 664 66 73 09.

**Arrasate.** Ingeniaritzakasita. Matematika, fisika, kimika, teknologia edota ingelesezko eskola partikularrak emateko gertu, batxilero, DBH eta Lehen Hezkuntzarako. Koldo. Deitu 660 14 56 67 telefonora.

**Arrasate.** Irakasle eta psikopedagogoa. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Esperimentzia handia. Lantaldetik. 658 70 67 84.

**Ingeniaritzakasita.** ikaslea DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko prest astelenehetik ostegunera. Fisika, kimika zein matematika ikasgaiak oso ondo menperatzen ditut. Beñat. Deitu 645 73 53 95 telefonora.

**Ofiati.** Arkitekturako ikaslea gertu Lehen Hezkuntzako, DBH eta batxilergoko ikasle talde txikiei laguntza eskolak emateko.

665 70 38 33.

**Lowepro CompuDaypack motxila.** Edukiera: reflex argazki kamera digitala, 2 edo 3 objektibo (tamainaren arabera), flash bat, 17 hazbeterainoko ordenagailu eramangarrak, PDA, boligrafoak, kargadorea, baita iPo dentzako poltsiko bat ere; gainera, aurikularak ateratzeko zulo bat, urtebetar baino gutxiago erabiliza eta egoera onean. Deitu 667 95 7316 telefono zenbakira.

**Monty-a.** Kubierta berriak. Freno hidraulikoak, olio berriarekin. Berria dago. 150 euro. Deitu 685 78 42 27 telefonora.

**Snow taula.** Nitro Pro 59 etxeko eta Drake fijazioak. 370 euro. 425-43 neurriko botak ere bai. 120 euro. Behin bakarrik era biliak. Deitu 645 72 25 24 telefono zenbakira.

**802. EROSI**

**Kongak.** Bigarren eskuko konga batzuk erosiko nituzke. Deitu 610 85 32 04 telefonora.

**Lanabesak.** Bigarren eskuko motozerra eta orturako rotabarra torra erosiko nituzke. Deitu 699 85 49 zenbakira.

**Urrezko** bitxiak edo urea erosiko nituzke. Deitu 656 75 76 98 telefono zenbakira.

**803. EMAN**

**Cocker ingelesa** salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrita dauzka. 200 euro. 618 00 08 28.

**704. BESTELAKOAK**

**Pentsua.** Royal Canin Boxer 26. 12 kiloko bost zaku salgai. Zaku bakoitzak 55 euro. 651 37 65 67 edo 677 79 32 87.

**Yorkshire terrier** arrazako txakurra lapurtu digute. Mikrotxi-pa du. 619 32 62 27.

**806. GALDU**

**Arrasate.** Urtarilean urrezko esku-muturreko galdu nuen. 652 70 23 50

**Eguzkitako betaurrekoak.** Martxoaren 20an, zapataun, eguzkitako betaurreko graduatua galdu nituen mendian, Besaidean. Aurtzak baditzu, deitu, mesedez. Deitu 619 33 72 95 telefono zenbakira.

**Motxa.** Joan den asteanean, 17an, Arrasateko Munarreko parkean motxa galdu genuen, laranja koloreko eta loreduna. Barruan txankletak eta lepozo bat zeuden eta izena ipintzen du: Nahia I. Norbaitek aurtzatu badu, deitu, mesedez. 619 87 57 48 telefono zenbakira.

**9/ HARREMANAK****902. HARREMANAK**

**Bergara.** Neska bat 37 eta 45 urte bitarteko mutil bergarabila. Erakargarria eta diru arazorik ez daukana. Lagunak iza-teko. Deitu 666 70 32 86 telefono zenbakira.

**904. BESTELAKOAK**

**Arrasate-Gasteiz joan-erorría.** Egungo Arrasatetik Gasteize-ra joaten gara. 08:00etarako etortzen gara eta 17:00etan irten. Interesatuz gero deitu. Automobila banatzeko zerbitzu-tza. [www.compartir.org](http://www.compartir.org) web-guenan edo 635 20 33 14 telefono deitura.

**LOKALA**

Debagoienean  
bulego lanerako gertu  
dagoen 200 metro  
koadro inguruko  
lokala behar  
dugu errentan.  
688 69 00 04

**5/ IRAKASKUNTZA****502. EMAN**

**Arrasate.** Irakasle eta psikolo-goa. Lehen Hezkuntzako laguntza eskolak emango lituzke. Deitu 645 73 04 69 zenbakira.

**DEBA GARAIA INMOBILIARIA**

Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI****BERGARA**

- Artekale, 89 m<sup>2</sup>, ondo.
- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, berritua eta aukerak ona.
- Matxiategi, 88 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Zubia 65 m<sup>2</sup>, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 m<sup>2</sup>, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m<sup>2</sup>, erakuntza berria.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso onda eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Urdangarin pasealeku, 132 m<sup>2</sup>, berritzeo.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 m<sup>2</sup>, 2 terrazak, 60+30 m<sup>2</sup>, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berritzeo.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>, berritua. Oso ondo.
- Zubia, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zobiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Marton.**

**SORALUZE**

- Baltegieta, 83 m<sup>2</sup>, berria.
- Sagerreka, 58 m<sup>2</sup>, aukerak ona.

**ANTZUOLA**

- Equizi auz

# Baita zu ere.

## Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.

Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero, CIEsek emandako datu berrien arabera. Eskerrik asko, irakurle guztioi.

> GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.  
> Debagoendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.

# Goienkaria

GOIENKARIA: 39.000 irakurle

El Diario Vasco: 23.000 irakurle

Gara: 8.000 irakurle

Marca: 3.000 irakurle

Berria: 2.000 irakurle

El Correo: 2.000 irakurle

El País: 1.000 irakurle

Bea Asurmendi > Musikaria

# "Kontzertuetan eta baita etxearen ere gehien erabiltzen dudana akustikoa da"

Bea Asurmendiren familian ez dago musikarik, hura da baka-rra. "Txikitatik jartzen zidaten

musika eta beti alde batera eta bestera musika saioak ikuste-ra joaten ginen". Abestu eta

gitarra ere jotzen du, baina lehenengo, kantua aukeratuko lukeela esan digu. Haren ame-

tsa gospel talde batean aritzea da, eta gustukoen duen abes-laria Celine Dion dela esan digu.

JASONE ZABALA > ARAMAIO

**Bea Asurmendi** (Aramaio, 1992) musika munduan murgildurik ibili da txikitatik. Hala eta guztiz ere, esan digu Ingeles Filologia ikasiko duela datorren urtean. Haren ametsa Ameriketako Estatu Batuetako gospel talde batean abestea edo zuzendarri lanak egitea da.

**Familiatik datorkizu musika-rako zaletasuna?**

Egia esan, nire familian ez dago abeslaririk, baina oso musikazaleak gara. Txikitatik jartzen zidaten musika, eta beti alde batera eta bestera musika saioak ikustera joaten ginen; batez ere aitarekin, txiki-txikitatik. Kantatzen pasatzen nuen denbora osoa. Horregatik, lehenengo mai-lan eskalako koroan egon ondo-ren, Aramaioko Papargorri abesbatzan hasi nintzen 9-10 urterekin; orain dela bi urte Goikobalun sartu nintzen. Hala ere, oraindik ere herriko abesbatzan parte har-teza gustatzen zait, jai eta ospakizunetan, kontzerturen baten... Horretaz aparte ere kantuko eskola-lera joaten naiz, eta baita sol- feora ere.

**Musika hain gustuko izanda, Ingeles Filologia ikastera joango zara datorren urtean.**

Hala da, bai. Zalantzan ibili ostean, Ingeles Filologia egitea erabaki dut, asko gustatzen baitzait hizkuntza hori eta baita irakasle izatea ere.

Betidanik ibili naiz ingelesa ikasten, baina musika alde batera inoiz utzi gabe. Horrela, bitartean, Gasteizen egongo naizen lau urte horietan musika mun-duan ere ondo prestatzea pentsatu dut, bertako musika eskolaren batean. Gainera, ingelesezko musika gustatzen zaidanez, eta ingelesez abestea, asko balioko dit horrek.

**Kantua edo instrumentua jotza. Zer duzu gustukoen?**

Kantua, noski. Kantua lehenengo eta ondoren gitarra. Iza-ere, gitarra ikasten hasi nintze-nean, neurri batean kantuan pen-tsatzan nenbilen, nahiz eta gitarra ere asko gustatzen zaidan, ahotsari laguntzeko oso ondo dagoelako eta gitarrarekin gustuko dudan musika jo dezakeda-la-ko. Baina, lehen esan bezala, benetan gogoko dudana kantatzea da.

**Joan den urteko Euskal Kan-tuen Txapelketan bigarren postua lortu zenuen. Nolakoa izan zen esperientzia?**



JASONE ZABALA

## PERTSONALA

**Herria:** Aramaio. **Adina:** 17 urte. **Ikasketak:** Bigarren mailako batxilergoa. **Zaletasunak:** Musika (abestu, musika entzun, gitarra jo...), bidaiatzea eta, nola ez, lagunekin irtetear. **Bizio bat?** Txokolatea. **Musika talde bat?** AC/DC; izan ere, oraindik zapa-

tuko shock-arekin nago... Baina abeslaria, Celine Dion. **Norekin abestuko zenuke gustura?** Celine Dion-kin. **Amets bat?** Noizbait, Ameriketako Estatu Batuetako gospel talde batean abestea eta zuzenda-ri lanetan aritzea. **Zer gorrotatzen duzu?** Gezurra.

Izugarri ona. Izan ere, jende asko eta kantu berri asko ezagutzeaz gain, esperientzia desberdina izan da musika taldean egi-ten ditugun kontzertuekin alde-ratuz. Beste sentsazio bat probatu nahi nuen, epailearen aurrean abestu, lehiaketa batean abestu... Esperientzia desberdina da. Txapelketa hasi baino pixka bat lehenago, agertokira irteteko nengoela nahiko urdu-ri nengoena, baina era berean oso-oso pozik; abesten hasteko izugarritzko gogoa nuen, kanpo-ra atera eta abestu. Ondoren, epaimahaia aurrean nuela eta lehiaketa zela ahaztu eta kanta-tzen nengoela ez nuen momen-tu hura amaitzerik nahi! Gainera, lagun eta senide ugari etorri ziren, eta aurrean oihuka anima-tzen ikusita... Ahaztezina izan zen benetan!

**Rockero Gozoak deitzen da zure taldea. Zergatik?**

Egia esan, bat-batean buratu-tu zitzagun izen hori. Agian, jotzen dugun musika motaga-tik... Rocka bai, baina ez hain gogorra... Baladak agian nagusi direlako edo kantu ez hain azkar-rak, lasaiagoak direlako.

**Gitarra akustikoa edo espai-niarra?**

Momentuaren arabera, baina gehien erabiltzen dudana akus-tikoa da, bai kontzertuetan eta baita etxearen ere. Soinua ere des-berdina da, gehiago gustatzen zait; gainera, erosagoa da, behin kablea ipinita ez daukazulako mikrofona ipini beharrik.

**Jakin dut Celine Dion abeslaria dela zure idoloa musika munduan.**

Bai, horrela da. Betidanik gustatu izan zait, haren ahotsa, kantuak... Haren ahotsa munduko onenetakoa dela iruditzen zait.

**Baina haren musikak ez dau-ka zerikusirik AC/DC taldeak egiten duen musikarekin...**

Joan den zapatauan Bilbao AC/DC ikustera joan nintzen, bai, eta benetan harrigarria izan zen, ahaztezina! Egia da oso des-berdinak direla, baina nik orokorrean mota guztiako musika entzuten dut, nahiz eta gogokoe-na Celine Dion izan.

**Zure ametsa?**

Bostonera joatea. Bertan dago Berklee College of Music delakoa, eta munduko onenetarikoa dela entzunda daukat.

## Pazko astean ere albistegia

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Nahiz eta Goiena Telebistak Pazko astearen ostean helduko dion ohiko programazioari, Pazko astean ez zarete gertuko Debagoienean gertatzen denaren gaineko informaziorik jaso barik. Hain zuzen, Pazko Astean, egunero, 14:45ean, *Berriak* saioan jasoko dituzue gurean gertatzen direnen berri. Hori, Goiatz Arana lankidearen eskutik jasoko duzue. Ez ahaztu, beraz, gureko albisteen berri izango duzueta egunero!

**GOITB, 'Berriak'**

> Egunero, 14:45, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45

## Umeendako 'Betizu izar artean' filma bihar, 15:00etan

Umeendako euskarazko filma eskainiko du bihar, eguna GOITB-k

GOIENKARIA &gt; HERRIA

*Betizu izar artean* euskarazko filma eskainiko du Goiena Telebistak bihar, 15:00etan. Etxeko txikienei eskainitako filma da Baleuko SL ekoizle etxearen lan hori. Filmak Betizuen istorio bat kontatzen du: Uztarrocka Betizuen galaxiako ikuskizun-areto orbi-

## Korrikaren gaineko guztia 'Erreportaje'-n, gaur gauean

Debagoiendarren Korrikarekiko atxikimendua itzela izan zen, hunkigarria eta ederra

### 'Erreportaje'-n, Debagoienean igaro zituen herriean jasotakoak ikusiko dituzue

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Gaur eskainiko du Goiena Telebistak Korrika 16k Debagoienean egin dituen kilometroen gaineko erreportajea. Dakizuen moduan, zapatutik iganderako gauean pasatu zen Korrika guretik, eta jendetza handiak egin zuen bat euskarraren aldeko ibilbidearekin. Gauez, eta eguraldia lagun, Korrikak Debagoieneko herriak pasa-

tu zituen. Guziak ez; izan ere, Elgeta eta Aramaiotik ez zen igaro Korrika. Baino beste guztietatik bai, eta une hunkigarri bezain politik bizi izan ziren herri guztietan.


Gauerrian, Korrikak Osintxuko kaleak hartu zituen. Handik, eta euskarraren aldeko oihuen artean, Bergarara egin zuen. Izugarria izan zen Bergarakoa; izan ere,

Erramu-zapatu egunarekin bat egin zuen Korrikak. Handik Antzuolara, eta Antzuolatik Deskarga mendatean gora, Urolara egin zuen Korrikak. Handik, 03:30ean, Udanan behera Oñatira jaitsi zen eta han ere une bereziak bizi izan ziren. Oñatitik Arrasatera, eta Arrasatetik Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagara egin zuen Korrikak. Herri horietan ere, euskararekiko eta AEKrekiko atxikimendua itzela izan zen.

Herri guztietaiko irudiak jaso zituen Goiena Telebistak, eta horiekin erreportajea egingo du Julen Iriondok.

**GOITB, 'Erreportaje'**

> Eguaztena, 22:15



Betizu izar artean fima eskainiko du Goiena Telebistak.

GOIENKARIA

**arrasate irratia**

FM 107.7

## Sukaldea eta osasuna

U.M. &gt; ARRASATE

Pazko aste ostean eguneroko tasunari sasoitsu eusteko moduko oparia zozketatuko dute irratian: *Salud a la carta* izeneko liburua, Bruno Oteiza eta Txumari Alfaro egileena. Izenburuak dioen moduan, sukaldetako errezeta osasuntsuak eta erremedio naturalak aurkeztu dituzte liburu horretan aditu bi horiek. Parte haritzeko: 943 25 05 05, *irratia@goienna.com* edo *goina.net* atarian dagoen irratiko blogean.

**Arrasate Irratia, 'Igo Autobusera'**

> Egubakoitza, 11:30etik  
12:00ak bitartean.

**astea GOITBn**

Eguaztena, 8	Eguena, 9	Egubakoitza, 10	Zapatua, 11	Domeka, 12	Astelehena, 13	Martitzena, 14
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton	08:00 Betizu izar artean.	08:00 Trikitraka trikiton	08:00 Pailazokeriak.	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Ikusmira: Aiton-amonak.	10:30 Trikitraka trikiton.	09:00 Marrazki bizidunak.	09:00 Trikitraka trikiton	09:00 Marrazki bizidunak.	09:00 Trikitraka trikiton	13:45 Ikusmira.
14:15 Jazz	11:30 Golb tb.	11:30 Betizu izar artean.	09:00 Marrazki bizidunak.	11:30 Rally.	10:00 Marrazki bizidunak.	14:15 Jazz
14:45 Berriak.	12:00 Euskal herria lau haizetara.	12:30 Mugaz Kanpo.	11:30 28 klip.	12:30 Solaskide.	11:30 28 klip.	14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.	12:30 Ikusmira.	13:00 Erreportaje.	12:00 Arte irekia.	13:00 Golb tb.	12:00 Eltze beroa.	15:10 Ilunpean.
15:50 Nire herria.	13:00 Eltze beroa..	13:45 Solaskide.	12:30 Mugaz Kanpo.	13:45 Erreportaje.	12:30 Erreportaje.	15:50 Nire herria.
16:20 28 klip	14:00 Erreportaje.	14:15 Eltze beroa.	13:00 Erreportaje.	14:15 Eltze beroa.	13:00 Euskal herria lau haizetara.	16:45 Berriak.
16:45 Berriak.	15:00 Trikitraka trikiton	15:15 Jazz.	13:45 Solaskide.	15:15 Betizu izar artean.	13:45 Solaskide.	17:15 Marrazki bizidunak.
17:15 Marrazki bizidunak.	16:15 Zaharrak berri.	15:45 Marrazki bizidunak.	14:15 Jazz.	15:15 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	17:45 Solaskide.
17:45 Solaskide.	16:45 Marrazkiak	18:15 Trikitraka trikiton.	15:45 Marrazki bizidunak.	18:15 Trikitraka trikiton.	15:15 Marrazki bizidunak.	18:15 Ur eta Iur.
18:15 Ur eta Iur.	18:15 Pailazokeriak.	19:15 Erreportaje.	18:15 Trikitraka trikiton.	19:15 Euskal herria lau haizetara.	18:15 Trikitraka trikiton.	18:45 Berriak.
18:45 Berriak.	19:15 Marrazkiak	19:45 Solaskide.	19:15 Pailazokeriak.	19:45 Euskal herria lau haizetara.	19:15 Pailazokeriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Erreportaje.	20:15 Erreportaje.	20:15 Erreportaje.	20:15 Erreportaje.	20:15 Euskal herria lau haizetara.	19:45 Goiena Magazinea.
20:30 Golb tb.	20:30 Golb tb.	21:00 Wazemank.	21:00 Wazemank.	21:00 Wazemank.	21:00 Solaskide.	20:45 Zaharrak berri.
19:45 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusten.	21:45 Erreportaje	21:45 Erreportaje	21:45 Erreportaje	21:45 Ilunpean.	21:15 Goiena Magazinea.
20:45 Zaharrak berri.	21:30 Ilunpean.	22:45 Musikantoi.	22:45 Golb tb.	22:45 Ilunpean.	22:45 Golb tb.	22:15 Erreportajea.
21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Solaskide.	23:30 Musikantoi.	23:15 Ilunpean.	23:15 Musikantoi.	23:15 Itsasori begira.	23:00 Mugaz Kanpo.
22:15 Erreportaje.	22:45 Erreportaje.	00:00 Jazz.	23:15 Ilunpean.	00:00 Itsasori begira.	00:00 Musikantoi.	23:15 Goiena Magazinea.
23:00 Mugaz Kanpo.	23:15 Ilunpean.	00:30 28 klip.	00:00 Ikerberri rallya.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.
23:15 Goiena Magazinea.	00:30 28 klip.	01:00 Emisio amaiera.a.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	

**telebegi**

Edu Mendibil  
> [goina.net/blogak/edu](http://goina.net/blogak/edu)

Ipar poloan  
Callejarekin

**B**idea lagun atsegina da Jesus Calleja alpinista. Gustura ikusten dut haren *Desafío extremo* (Cuatro). Mundu osoko txoko zoragarriek erakutsi dizkigu jadanik. Manuel Larramendi, Maria March... eta Emilio kameralari *ezkutuaren* laguntzaz, iazko apirilean ipar polora egin zuen bidaia eman zuten domekan. Tonu didaktikoa (masa polarraren jitoaren fenomenoa) eta lagun arteko bidaien izpiritua primeran uztarren ditu Callejak, umorez zipriztindutako komentarioetan. Paisaia izoztuan irudi zoragarriak jaso zituzten, musika ederraz lagunduta. Kamerarekin benetan trebea da Calleja; -35 °C-rekin gauza izan zen bere burua grabatzeko, kanpin dendatik hurbil kaka egiten.

Amaieran, ipar poloraino helikopteroz joandako errusiar aberats talde batekin elkartu ziren. Leongo txorizoa eta kabiarra partekatu zituzten *Video killed the radio star* abestia entzuten zela. Eta nork akabatu zituen garai bateko esploratzaleak?

## herritarrak galdezka

MERKURIOZKO TERMOMETROAK NORA ERA MAN BEHAR DIRA?

**Aretxabaletako herritar batek deitu digu esateko jakin duela dagoeneko merkuriozko termometroak erabiltea debekatuta dagoela hemendik aurrera. Jakin nahi du etxeen horrelako termometrorik izanez gero eazer egin behar duen horiekin, nora era man behar dituen.**

Mankomunitateko Ingrumen Sali era jo dugu termometroen gainean galdetzen. Bertan adierazi digute termometroak etxetik kendu nahi izanez gero, bi lekutara eraman daitezkeela: alde batetik, Puntu Berde Mugikorrean entrega daitezke. Horretarako, apirilaren 20an eta 27an Aretxabaletan izango da Gerrika plazan, 09:00etatik 13:00ak arte; eta nahi duenak bertara eraman dezake.

Beste aukera bat da Arrasateko Garbigunera eramatea. Bertako ordutegia ondorengoa da: astelenean egubakoitzera 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara eta zapatuetan 09:00etatik 13:30era. Jaieguna itxita egongo da eta zapatu honetan ere bai. Baino Oñati kora edo Bergarako ere eraman daiteke. Bergaran San Kristobal auzoan, Angiozar bidean dagoen garbigunea (943 76 44 42) eta Oñati Urrutxun, Garagaltza bidean dagoenera (943 78 36 67).

AGORROSINGO EKINTZA GUNEAN KORRIKA EGITEKO ZINTA NOIZ IPINI BEHAR DUTE?

**Bergarako irakurle batek bidali digun kexan zera adierazten da: "Duela gutxira arte Agorrosingo EKINTZA GUNEKO gimnasioan korrika egiteko bost zinta zeuden eta horietako bat kendu egin zuten; oraindik ez dute bueltan ipini; makinak erabiltzen eta batez ere**



Termometroak garbiguneetara eraman daitezke.

GOIENKARIA

**korrika egiteko zintak erabiltzen egoten den jende pila ikusita, kendu duten zinta horren beharra dagoela uste dut. Zergatik kendu zuten? Zein era-baki hartu du Udalak horren gaine-an?".**

Udaleko Kirol teknikari Unai Asurmendirekin egon gara gai horren

### Galdera egiteko:

Zerbaitek arduratzan bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzi galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin.

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria, Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

gainean hitz egiten, eta hark zera adierazi digu: "Gimnasioko argindar sareak ez du potentzia nahikorik lasterka egiteko bost zinta hornitzeko, horregatik daude orain lau. Sare potentzia eskas horrek automatikoa saltarazi egiten zuen, eta erabiltzaleendako arrisku egoerak sortu. Horregatik kendu genuen zinta bat", esan digu Asurmendik. Horrek batera adierazi digu egoera hori kontzentrazio asmoz apirilaren 14tik 19ra geldialdi eta garbiketa astean, argindar sarearen potentzia handitzeko lanak egingo dituztela. Horrela, "aprilaren 20rako eta dena ondo badoa korrika egiteko bost zintak egongo dira prest", esan digu Asurmendik.

Amaitzeko, Asurmendik zera jakinarazi nahi die Agorrosin Ekin-tza Guneko erabiltzaile guztiei: "Halako zalantzak argitzeko gimnasioan bertatik bertara egunero dauden begiraleekin hitz egiteko aukera eskaini nahi nieke erabiltzaileei, haien ere horrelako zalantzak argi ditzaketelako".

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



#### Eguena, 9

Ez da garbi egongo zerua eta hodei batzuk egongo dira. Eguna amairaren zerua estalita geldituko da. Temperatura nabarmen igoko da.




#### Egubakoitzta, 10

Temperaturak nabarmen egingo du behera, zeruak lainotuta jarraituko du eta euri zaparradak ere botako ditu.

### EUSKAL HERRIAN

Aste Santuan eguraldi ezegonkorra izango da; temperatura aldaketa zakarrak egongo dira. Asteburua eskas hasiko dugu, baina domekarako hobera egingo du.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA	2ºC	Max. 0°C	Min. 0°C	Euria l/m³
Eguena, 2		12	7	-
MAXIMOA	23ºC	Eguaztena, 1	15	2
Astelehena, 6		Eguaztena, 15	16	0,4
ASTEKO EURIA (l/m³)	11,8 L	Zapatua, 4	13	0,3
Domeka, 5		Domeka, 5	15	-
Astelehena, 6		Astelehena, 6	23	11,1

## bono fotoa



**Plaza hori Debagoieneko zein herrian dago eta Udaletxea zein mendetako da?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

**AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA**  
Antzuolako Jose M. Iturbe.  
Zorionak!  
Erantzun zuzena: San Blas



Garmendia Ardoek emandako

### Ardo botila packa\*

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago kriantza 2006. / Larchago Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

HERRIA .....

TELEFONO.....

Ekari txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

### ARRASATE

Zapatua, 11	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 77 14 09
Domeka, 12	Amezua	Santa Marina., 32	943 77 09 74
Astelehena, 13	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 77 14 09
Martitzena, 14	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 77 14 09
Eguaztena, 15	Amezua	Santa Marina., 32	943 77 09 74
Eguena, 16	Español	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Egubakoitzta, 17	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 77 14 09

### BERGARA

Zapatua, 11	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 12	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 13	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 14	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 15	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguena, 16	Urrutikoetxea	Oixondo plaza, 4	943 76 11 74
Egubakoitzta, 17	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87

### ONATI

Zapatua, 11	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 12	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 13	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 14	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 15	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 16	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitzta, 17	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

### ARETXABALETA

Zapatua, 11	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Zapatua, 11	Agirre (Esko.)	Gorosari plaza	943 71 48 28
Domeka, 12	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehena, 13	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena, 14	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 15	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 16	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitzta, 17	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.  
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

## ezkонтzak



**Amparo Etxaniz** bergararra eta **Vicente Mendaratz** arrasatearra orain dela 50 urte ezkondu ziren. Urrezko ezteiak ospatzeko apirilaren 18an meza izango dute Arrasateko San Isidro elizan, eta gero senideekin baxaria. Zorionak!



Oñatiako **Jaxinto Lizarralde** eta **Jesus Maiztegi** apirilaren 9an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak eta patxo handi bana, seme-alaben eta biloben partitik.



**Joxe Mari Ganboa** eta **Lorea Sagasta**, 1984ko apirilaren 14an Arraten ezkondu ziren. Alaba Nahikarik, Ikerrek eta famili guztiek zorionten dute bikotea egun berezi horretan. Zorionak bikotea eta beste hainbeste urte bete ditzazuela elkarrekin. Ondo pasatu zilarreko eztei bidaia Portugalen.



Bergarako **Jose Mari Oregi** eta **Benita Azkarate** orain dela 50 urte ezkondu ziren, eta ezteiak ospatuko dituzte apirilaren 9an. Familiantean ospatuko dute egun berezi hori. San Pedro elizan izango dute meza eta baxaria Itziarko Salegi jatetxeen.

## hildakoak

- Isabel Arabaolaza Inza. Oñati, martxoaren 30ean. 87 urte.
- Vicente Alonso Sanchez. Arrasate, martxoaren 30an. 69 urte.
- Francisco Molina Higueras. Bergara, martxoaren 31an. 73 urte.
- Antonio Errasti Elejalde. Arrasate, apirilaren 3an. 70 urte.
- Lazaro Ibarguen Amutxastegi. Arrasate, apirilaren 6an. 83 urte.
- Carmen Elgarresta Larrañaga. Antzuola, apirilaren 7an. 89 urte.

## ESKELAK

GOIENKARIA eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguna eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritzat batera, eguna eguerdia baino lehen:

### Arrasate

Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 25 05 05.  
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

### Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

### Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

### Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

### Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

### Egeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

### Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

### Eskelaren prezioa: 110 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteluheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratur gero, **150 euro**.

**ASTELEHENeko GOIENKARIKO harpidedunak: 100 euro**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteluheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratur gero, **140 euro**.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle. (CIES)**



## URTEURRENA

### Candida Garitano Eguren



Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKER ONA

### Paco Molina Higueras



2009ko martxoaren 31n hil zen, 75 urte zituela.

Unerik gogorrenetan benetako lagunak zaretela erakutsi diguzuelako, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko apirilaren 8an.

## Babeslea:



Beilatek  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net



### Martin Kortabarria Azkarateaskasua

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



### Juan Maria Lizarralde Ugarte

Lehen urteurreneko meza apirilaren 19an, domeka, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokiian ospatuko da.

Familia eskerrak eman nahi dizkie elizkizunetara joango diren guztiei.



# Apirilak 8-19

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



### ESKORIATZA

#### > Gose taldearen emanaldia gaur gauean Inkernu tabernan

Gose taldeak Eskoriatzako Inkernu tabernan emanaldia egingo du gaur, eguztena, 22:30ean. Ines Osinaga, Jon Zubiaga eta Iñaki Bengoak osatutako hirukotea lagunen aurrean oraingoan, Aitzorrotz kultura elkartearen esku.

## Erakusketa



### BERGARA

#### > Jorge Oteitzaren gaineko erakusketa Aroztegi aretoan

Orioko artista handiaren lanari gainbegiratua egiten dion erakusketa ibiltaria Bergaran jarri dute ikusgai. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

## Erakusketa



### ARRASATE

#### > 'Biblioteca en guerra, Liburuaren Eguneko ospakizunen harira'

II. Errepublikan eta 1936ko Espaniako gerran biblioteka publikoek egindako lan mardula islatzen du erakusketa. Apirilaren 30era arte izango da ikusgai Kulturateko klaustroan (Aste Santuan itxita egongo da).

emakumeei zuzenduta. Plaza mugatuak.

Izenematea Udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo 943 77 91 65 telefonoan.

## DEBAGOIENA

#### > Gurutze Gorriaren ikastaroak Arrasaten eta Oñatin

Debagoieneko Gurutze Gorriak bi ikastaro iragarri ditu: geriatria laguntzaile ikastaroa Kulturaren (apirila- ren 20tik maiatzaren 8ra) eta osasun garraio laguntzaile ikastaroa Zubillagan.

Izenematea eta argibideak 619 00 35 00 telefono zenbakian, astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 19:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 14:00etara.

## DEBAGOIENA

#### > Alpinismo ikastaroa Gipuzkoako Goi-Mendi Eskolarekin

Gipuzkoako Goi-Mendi Eskolak antolatuta, alpinismo ikastaroa izango da apirilaren 25ean eta 26an. Apirilaren 14a baino lehen eginez gero, izenemateak 115 euro balio du eta bestela 137 euro.

Izenematea eta argibideak 699 63 39 50 telefono zenbakian.

## Lehiaketak

### BERGARA

#### > Mendekoste jaietako kartel Lehiaketa

Pazkoetako egitarauaren azala egiteko lehiaketa deitu du Bergarako Udaleko Kultura Sailak. Bergaran erroldatutako edozein pertsonak har dezake

## Musika

### ARRASATE

#### > Bi kontzertu 3.60 aretoan datorren astean

Distorsion eta Material Rechazado taldeek hilaren 17an joko dute eta zapaturako, hilaren 18rako, Ancient, Gothmog eta Denila iragarrita daude.

Hilaren 17ko kontzertua 22:30ean eta 18ko 22:00etan, 3.60 aretoan.

## Erakusketak

### ARAMAIO

#### > '20 urte amets bat eraikitzen'

Udaletxean, apirilaren 24tik 26ra.

Apirilaren 24an: 18:30-20:00.

Zapatuan, hilaren 25ean: 12:00-14:00/ 17:30-19:00. Domekan, hilaren 26an: 12:00-14:00/18:00-19:00.

## Hitzaldiak

### ARRASATE

#### > Pruden Gartziaaren hitzaldia apirilaren 23an

Intelektualak eta faxismoa Espainiako Gerra Zibilean: zenbait adibide hitzaldia egingo du Pruden Gartzia, Liburuaren Eguna ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan.

Apirilaren 23an Kulturan, Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan.

## Ikastaroak

### ARETXABAleta

#### > Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak

Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak.

Argibideak Arkupen: 943 08 10 01.

### PROPOSAMENA



### BERGARA

#### > 'Aulki hutsa', antzezlan bakarrizketa

Joseba Sarrionandiaaren testuetan oinarritutako antzezlan-bakarrizketa, Compania Petit Theatre de Pain taldearen esku. Ander Lipus da antzezlaneko zuzendaria. Poesia antzerki bilakaturik. Manex Fuchs da aktore bakarra, eta musika Battitt Elissalderena. Erbestetik itzuli ezin den gizon batek tragoa eskaintzen digu, ikusleekin harreman zuzena izan nahian...

Datorren egubakoitzean, hilaren 17an, Bergarako Zabalotegi aretoan, 22:30ean. Sarrera 3 eurotan salgai.

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

### PLANETARIUM BERRIA

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarrriak:** Asteburu eta jai egunetako saioak: 12:00 eusk., 13:00 gazt., 15:30 fran., 16:15 gazt., 17:00 eusk., 18:00 gazt.

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.

**Itsuaizar begiekint:** Ipuin animatu bat, non itsu bat eta tirano bat protagonista dituena.

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia  
**Kartoizko Suziriaren sekretua:** Haurrei zuzenduta.

BERRIA!

### ASTE SANTUKO OPORRETAN GAINERAKO:

**Elektrizitatea ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia.

**Planetarium Txikia:** 4-9 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten

**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera

**1,2,3...matemagia!!!, Ur kohetea,  
Sumendiak, Planisferioak,  
Esperimentuak, etab.**

### BESTE AKTIBITATE BATZUK

Artea Unibertsioa argazki erakusketa, irailaren 30a bitartean zabalki.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78

[www.miramón.org](http://www.miramón.org)

parte lehiaketa. Irabazleak 600 euro jasoko ditu.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 28 arte dago zabalik. Argibideak Bergarako kultura etxearen, 943 77 91 59 telefono zenbakian.

#### DEBAGOIENA

##### > Ziberkomiki lehiaketa deitu du Diputazioak

Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak ziberkomikien eskola lehiaketa antolatu du. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko ikasleek har dezakete parte. Lan onenendako sari bikainak izango dira.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 30era arte dago zabalik. Argibide gehiago [www.gipuzkoaeuskara.net/ziberkomika](http://www.gipuzkoaeuskara.net/ziberkomika) webgunean.

#### ARRASATE

##### > San Juan jaiak: irudi lehiaketa deitu du Udalak

Lehiaketa honetan edozein pertsonak har dezake parte. Kartelek derrigorrez textu hau izan beharko dute: 2009 San Juan Jaiak Arrasate. Irabazleak 750 ko saria jasoko du.

Lanak entregatzeko epea maiatzaren 22ra arte izango da zabalik. Argibide gehiago Biztanleen Arreta Zerbitzuan, 943 25 20 00 telefono zenbakian.

#### ARRASATE

##### > Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian barkerrik aurkez daitezke eta bakarra zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketa.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik. 943 79 41 39.

#### ESKORIATZA

##### > Bideo lehiaketa deitu du Eskoriatzako Udalak

Kataia eten barik egitarauaren barruan aurtengo nobedadea bideo lehiaketa da. 12 urtetik gorakoei zuzenduta, banaka zein taldeka. Gaia: *Kanpotik nator, baina bertakoa naiz*. 300 euroko saria.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 19ra arte zabalik. Argibideak: 943 71 44 07.

#### DEBAGOIENA

##### > Elkar argitaletxeak ipuin ilustrazio lehiaketa deitu du

Hamar urte arteko haurrei zuzendutako lehiaketa da Elkarrek deitutakoa. Joxan Ormazabalen *Hitz eta zaunka* ipuin argitaragabea ilustratuz saria irabazteko aukera izango dute parte-hartzaleek.

Argibide gehiago Elkar liburu dendetan edo [www.elkar.com](http://www.elkar.com) webgunean.

#### LEKEITIO

##### > Euskal Zine eta Bideo Bilera

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz. Epea irailaren 11n bukatuko da.

Argibide gehiago 94 624 34 82 zenbakian edo [www.bideobilera.com](http://www.bideobilera.com) webgunean.



## La duquesa \*\*

Zuzendaria: Saul Dibb.

Aktoreak: Keira Knightley, Ralph Fiennes. Britania Handia, 2008. 110 min.

**D**evonshireko dukesa dugu film honen protagonista nagusia. Istorioa XVIII. mende bukaeran kokatzen da, Inglaterrako Gortean (Frantziako Iraultz eta Independentziako Gerra tartearen). 17 urteko neska gazte bat seme bat eduki nahi duen duke batekin ezkonduko da, bere amak ezkontza antolatu ondoren. Dukea ez dago maiteminduta, baina seme bat nahi du bere oinordekoia izateko. Jaioko diren haurrek neskak izango dira, eta hor hasiko da okertzen komentziako ezkontza. Neska gatibu sentituko da, luxuzko bizi ilun horretan. Ez da maitatua sentitzen eta ez diote maitatzeko aukerarik ematen.

Itxura zaintzearen garantzia erakusten zaigu. Gortean badira arau batzuk eta horrek mantendu edo, behintzat, mantentzen diren itxura egin behar da. Ohiturak eta itxurak mantentzeak azken finean gizakien arteko harremannak mugatzen dituzte eta pertsonaia guztiak, boteretsu eta hain indartsu ez direnek, horien jabe bukatzen dute.

Ondo ikus daitekeen filma da *La duquesa*. Ekoizleen artean BBC agertzen da eta horrekin badakigu aterako den emaitzak sendotasun bat izango duela. Girotzea, jantziak, istorioa kontatzeko modua, Keira Knightley, Ralph Fiennes eta beste aktoreen lana... Ikkusten duguna ezaguna egiten zaigu, eta halako filmak gustuko dituzten ikuileak pozik aterako dira. Dena den, agian gertatzen den guztiari intentsitate dramatiko apur bat falta zaio. Pauso bat aurreera ematea edo zerbait berria ikusteko aukera ekartzea. Gauza dramatiko asko gertatzen dira: ezinezko amodiaok, maitaleak, seme-alaba baztertuak, bortxaketa, emakumeek jasaten duten tratu diskriminaziona... baina gertakizun dramatiko horiei intentsitate errromantikoa falta zaie ikuslearen bihotza astintzeko. Filma egokia da, baditu gauza onak, baina ikusten duguna ezagunegia egiten zaigu agian.

Antonio Zabala

# Zinema

#### ARRASATE

##### AMAIK ANTZOKIA

###### El lector

Zapatua (hilak 18): 19:30, 22:00.

Domeka (hilak 19): 19:30.

###### Más allá de los sueños

Domeka (hilak 19): 17:00.

###### BERGARA

##### ZABALOTEGI

###### Vicky Cristina Barcelona

Eguera (hilak 12): 19:30.

###### High School Musical 3

Domeka (hilak 12): 17:00.

###### C.R.A.Z.Y.

Eguera (hilak 16): 20:00.

##### ARETXABAleta

###### ARKUPE

###### Vicky Cristina Barcelona

Eguera (hilak 16): 22:00.

###### La duda

Egubakoitza eta zapatura (hilak 17 eta 18): 22:00.

Domeka (hilak 19): 19:30.

###### Astelena (hilak 20): 16:00.

###### Un chihuahua en Beverly Hills

Domeka (hilak 19): 17:00.

###### GASTEIZ

##### GURIDI

###### Confesiones de una compradora compulsiva

16:45.

###### Dragonball evolution

17:30 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 18:00, 20:00, 22:00.

###### Señales del futuro

15:35 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.

###### Al final del camino

15:45 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

###### Los abrazos rotos

16:45 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 19:15, 21:45, 00:15.

###### Duplicity

00:00 (domekara arte); 22:00 (hilaren 13tik 16ra).

###### Gran Torino

15:45 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

###### Control

17:30, 20:00, 22:30.

#### ARRASATE

##### AMAIK ANTZOKIA

###### La lista

18:45, 20:45, 22:45.

###### Mentiras y gordas

16:45, 18:45, 20:45, 22:45.

Apirilaren 8tik 16ra.

###### FLORIDA-GURIDI

###### Paris, Paris

18:00, 20:15, 22:30.

###### Los abrazos rotos

20:00.

###### Gran Torino

17:30, 20:00, 22:30.

###### La duquesa

17:30, 20:00, 22:30.

###### Animal Channel

17:30.

###### En el séptimo cielo

20:00, 22:30.

###### Espías en la sombra

18:00, 20:15, 22:30.

###### The visitor

17:30, 22:30.

###### Slumdog millionaire

15:30 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

###### La pantera rosa 2

15:45 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 17:45.

###### Más allá de los sueños

16:25 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 18:25.

###### Hotel para perros

15:30, 20:00, 22:30.

###### Los abrazos rotos

22:20.

###### Confesiones de una compradora compulsiva

16:05.

###### Duplicity

20:10, 22:40.

###### Street fighter: la leyenda

16:10, 18:05.

###### Una pareja de tres

20:15, 22:30.

###### Más allá de los sueños

16:05, 18:10.

###### Fast and furious: aún más rápido

15:50, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

###### Monstruos contra alienígenas

16:00 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 18:00, 20:00, 22:00.

###### Dragonball evolution

16:40 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 18:30, 20:20, 22:10, 00:40;

###### Señales del futuro

15:35 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.

###### Al final del camino

15:45 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

###### Los abrazos rotos

16:45 (zapatuan, domekan eta jai egunetan), 19:15, 21:45, 00:15.

# Erraldoieei izena jartzeko lehiaketa

**BERGANAN** Sei erraldoietatik lauk ez dute izenik eta horiendako izena pentsatzea da lehiaketaren oinarria

**NEREA MENOR** > BERGARA  
 Buruhandiekin batera erraldoiak beti daude presente jaiak alaitzko orduan. Bergaran sei erraldoi daude eta, konpartsarekin batera, sarritan irteten dira herritarra. animatzera, baita beste herri batuetara ere.

Erraldoien artean bi bereziki garrantzitsuak izan dira herrian, Mari Kattalin eta Joxe Bixente senar-emazteak, abestia eta guzti dute-eta: *Gigante, gigante vestido de elegante; gigante, gigante vestido de percal. Mari Kattalin gona gorri dantzari ta Artzai Jose Bixente Kolokan-kolokan dabiltza kalian danbolin soinuaz*. Horrela dio bi handi haien omenez eginiko kantuaren letrak.

Beste lau erraldoiek, aldiz, ez dute ez abestirik ezta izenik ere. Bada, egoera horri irtenbidea

emateko, Udalak erraldoiak izendatzeko lehiaketa abiaraziko du laster. Bergaran erroldatutako edonork har dezake parte, eta, izena aukeratu ondoren, Mende koste jaietan parodia baten bitarte zibila egingo zaie lau erraldoiei.

#### XVIII-XIX. MENDEETAKOAK

Senar-emazte osatutako bikoteak izendatu behar dira. Lehenengo biak XVIII-XIX. mendeetan Bergaran izan ziren jauntxoei begira egindakoak dira. Mende beretako herriko baserritarren eredu jarraitu egin ziren beste biak. "Baserritar-eleganteen jantziak dituzte", diote Udal iturriek.

"Bikote bakotzarentzako izenarekin batera, izen hori jartzearen zergatia azaldu beharko dute parte-hartzaileek", azaldu

**ASPALDIKOAK** Duela bi mende herrian zeuden baserritar eta jauntxoei begira eginikoak dira

digu Maider Osak, Kultura teknikariak. "Erraldoi bakoitzaren izaera eta garaia kontuan hartu beharrekoak dira. Gainera, euskal kutsua eduki behar dute izenek; Bergaran sasoi hartan zegoen euskal kutsua".

**LEHIAKETAREN OINARRIAK**  
 Gaur bertan oinarriak argitaratzeko asmoa du Bergarako Udalak; bestela, egun gutxi izango dituzte parte-hartzaileek izenak pentsatzeko, sariak Mendekosteak baino egun batzuk lehenago eman nahi dira-eta.

Izenak taldeka nahiz bakarra aurkez daitezke, eta, partade bakoitzak lau izen aurkeztu behar dituenez, baliteke bi sari banatzea, "epaimahaia pertsona ezberdinak aurkeztutako izenak gustuko baditu", dio Kultura teknikariak.



DANTZA Jaietan erraldoiekin batera dantzatzen dira herritarra.

GOIENKARIA

#### ahobero

"Gure planetak guztiondako ura badu, baina hau ez da era egokian gestionatzen"

**Josu Sanz** > UNESCOK Euskadin duen ingurumen arloko zentroko arduraduna.

Baina, mila milioi pertsonak, sei biztanleetako batek, ezin du ur garbirik lortu. Nazio Batuek hori guztia badakite; duela gutxi, gainera, Uraren Foro Mundiala egin da Istanbulen. Arazoari benetako irtenbidea aurkitu behar diote.

#### iturri onetik

**Kickboxing erakustaldia egingo dute maiatzean, Bergarako jaietan**

Aurtengo Bergarako Mende koste jaietako zapatu arratsaldean kickboxing erakustaldia egingo dute Bergarako Errege Mintegiko patioan. Aurreratu digitenez, Euskal Herriaren eta Frantziaren arteko lehia izango da.

Bergarako Udalean ez dute halako erakustaldirik gogoratzen herrian, eta noizbait izan bbada, "oso aspaldi izango zen", diote. Euria eginez gero Udal Pilotaleku egingo da.

#### piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Egin zitekeen hobeto

**M**aringo zubiaren zutabeak ikusgarriak dira, bai. Eta Isuskitzako bi tunel luzeak elkarri lotuta daude hainbat puntutan, istripu kasuan seguratsuna bermatzeko. (Bide batez, gehien bat lurpean doan AHT tunel bakarrean badoa, non geratzen da hor seguratsuna?).

AP-1 deitu duten autopista txukun egina dago, autoz pasatuta oso modernoa dirudi. Baina autopistaren azpian gauzak egin zitezkeen hobeto. Edozein autopistak ditu zutabe garaiak eta tunel ero索ak. Azken belaunaldiakoek, gainera, azpikoa ere kontuan hartzen dute. Esaterako, mendi maldak airez pasatzen dituzte, azpitik bizitzak jarrai dezan. Hain zuzen, hori eskatu zuen Eskoriatzak eta ez diote jaramonik egin. Harresi galantak erdibitu du herria, sekulorun sekulotan.

#### ai, ene!



**Hareaz egindako besaulkia kostaldean**

Hondartzan zaudela egongelako besaulkia faltan igartzen baduzu, horrelako bat egin eta etxe-an moduan egongo zara.

<http://fotoscuriosas.net>

**iKER**

#### SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
 OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**FAGOR**

sukaldeko altzariak %25eko deskontua 4 modelotan.

